ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2010eko maiatzaren 10a > Astelehena > VII. urtea > 276. zenbakia > 1,10 euro
Goiena 10 URTE www.goiena.net TOKIKOM

"Nerabe izateak bihurri izatea dakar, kontua da nola bideratzen den hori"



**Jose Mari Larrañaga** Arrats elkarteko kidea > 08

**G2a** **Albert Pla, aldi berean bihurria eta zintzoa** > 29

**ARETXABALETA** **Loramendik herriari begirako elkartea izan nahi du ostera** > 11

**ARRASATE** **Ordu erdiro pasako da herriko urbanoa irailetik aurrera** > 14

**OMENALDIA** **Oñatiko Gotzon Osinaga txistu maisuari esker on beroa** > 32



**HERRIRA BUELTAN** Ainhoa Sanchez Miss Euskadi, domeka iluntzean, asteburu osoa lanean eta galan pasa ostean, Aretxabaletara heldu bezain pronto. JOSETXO ARANTZABAL

**JENDARTEA** > IZENDAPENA

# Ainhoa Sanchez aretxabaletarra, Miss Euskadi

**JARRAIAN** Lanetik jo zuen galara eta horrek urduritasuna kendu zion; lagundu egin ziola uste du

**HURRENGOA** Sanchezek lanean jarraituko du, Miss España galarako noiz deituko zain > 04



Heriz atezaina ikusleak txalotzen. J.A.

**KIROLA** > FUTBOLA

## UDAk maila galdu du

Amaiera tristea eman dio Aretxabaletak Hirugarren Mailako ibilbideari. Igor Gordobilen mutilek partidu txarra jokatu eta hutsean berdindu zuten Salvatierra azken sailkatuaren kontra, mailari eusteko gertatu beharreko karanbola eragotziz. > 22-23

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-28
**Kultura** > 29-33
**Sailkatuak** > 34-35
**Denbora-pasak** > 36
**Telebista-Irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39

**SASKIBALOIA** > 4KO FINALA

## Finala jokatu bai, baina galdu egin du Eskoriatzak

Finalerdietan Añorgari irabazi ondoren, Iraurgi faboritoarekin galdu zuten > 21






**JENDARTEA** > UDALA

# Hileta zibilak arautzen dituen bigarren herria da Aretxabaleta

**AHO BATEZ ONARTUTA** Joan den astelehenean egindako osoko bilkuran aho batez onartu zuen udaldabatzak ordenantza berria

**ESKORIATZAN, 2009AN** Debagoienean, Eskoriatza izan da mota horretako araudia egiten lehena; 2009ko azaroan onartu zuen Udalak behin betiko

**ESKAERARIK EZ** Eskoriatzako alkate Pedro Lasagabasterrek jakinarazi digu udalerrian oraindik ez dela eskaerarik egon horrelako zeremonia bat egiteko

MIRIAN BITERI > ARETXABALETA

Gero eta ohikoagoa da Debagoienean hileta eta omenaldi zibilak egitea. Bailarako udalak horretaz jabetu dira, eta, hori dela-eta, horiek arautzeko beharra ikusi dute. Eskoriatzako Udala izan zen horretan lehena, 2009ko azaroaren 25ean egindako osoko bilkuran horren gaineko ordenantza, aho batez behin betiko onartuta. Orain, zerrenda horretan ondoko herria gehitu zaio: Aretxabaleta, hain justu ere. Joan den astelehenek osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak; kasu horretan ere, aho batez.

Hileta ospakizunak edo omenaldi zibilak egiteko baimena eman eta horretarako udalerriko eremu publikoen erabilera arautzea da ordenantza horren helburua. Biek nabarmentzen dute erlijiorik gabe bizi izatea aukeratu duten herritarrei zeremonia "duina eta pertsonala" eskaintzeko beharretik sortu direla, herritar horiek bizitza ulertzeko duten modua errespetatzeko.

**ALKATEAK EDO AUZO-ALKATEAK**

Araudiek diote herri bakoitzeko alkateak edo hura ordezkatuko duen zinegotziak hileta horietarako gordetako espazioak erabiltzea baimendu ahalko duela, hildakoaren senitartekoak edo dagokionak udaletako erregistrora bidali beharreko agiriak jaso ondoren. Landaguneetan auzo-alkateen eskuetan egongo da hori.

Eskaerak alkateei zuzenduko zaizkiela ere zehazten dute, ondorengo dokumentazioarekin batera: hildakoaren izen-abizenak eta heriotza-ziurtagiria; ekitaldiaren eguna, ordua eta iraupena; ekitaldiaren deskribapen laburra eta beharko den materiala eta eskatzailaren sinadura. Horrekin batera, ospakizunok egin ahal izateko aurreikusitako eremu publikoa ere aukeratu beharko du eskatzaileak.

**UDALTZAINGOA KANPOAN**

Gaineratzen dute hiletak astelehenetik domekara egin ahal izango direla herri bietan, 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara; eta udalek baliabideak jarriko dituztela horretarako. Gainera, ekitaldiak irauten duen bitartean, Udaltzaingoa izango dela kanpoan diote, ekitaldia arazorik gabe egiten dela bermatzeko.

Horrekin batera, azaltzen dute hildakoaren gertukoek udal lokala apaindu gura badute, aurrez eta nahiko denboraz horren berri eman beharko diotela Udaltzaingoari. Bestalde, sor daitezkeen gastuak bere gain hartu beharko dituztela ere aurreikusten dute.

**AURRE HARTU**

Astelehenean onartu zen ordenantzaren jatorriaren harira, Aretxabaletako alkate Inaxio Garrok azaldu du herritarren eskaerarik egon ez bada ere, horri "aurre hartu" nahi izan diotela: "Gizartea gero anitzagoa da eta bihar edo etzi etor daiteke eskaera bat; hori dela-eta, badaezpada, onartzea erabaki dugu. Baina, egia esan, gaur arte ez dugu eskaerarik jaso".

**ESKORIATZAN ORAINDIK EZ DA EGIN**

Bestalde, Eskoriatzako alkate Pedro Lasagabasterrek jakinarazi digu "zorionez" oraindik ez dela hileta zibilik egin. Udalerri horretan ere ez zen horrelako zeremoniak egiteko herritarren eskaerarik aurkeztu aurretik; EB-Berdeek batzorde baten egindako proposamenetik iritsi zen.

Lasagabasterren esanetan: "Ordenantza egiterakoan, garrantzi handia eman genion duintasunari, eta lekuek publikoak eta ganorakoak izan behar zutela argi geneukan. Eskoriatzan leku asko eta onak aurreikusi ditugu, eta hori beste herri batzuetan ez dago".

Azkenik, apurka gainerako herrietan ere horrelako ekimenak onartzen joan daitezela espero duela aipatu du.



Aretxabaletako udaletxe osteko loraetegian egin ahal izango dira laster hileta ospakizunak. MIRIAN BITERI

ESANAK

**"Gizartea geroago eta anitzagoa da eta etor daitekeen eskaerari aurre hartu nahi izan diogu"**

**Inaxio Garro** >
Aretxabaletako alkatea

**"Ordenantza egiterakoan, lekuek publikoak eta ganorakoak izan behar zutela argi geneukan"**

**Pedro Lasagabaster** >
Eskoriatzako alkatea

NON EGIN DAITEZKE HILETAK?

## Sei eremu publiko eta landaguneak

Aretxabaletan eta Eskoriatzan, hileta ospakizunak eta omenaldi zibilak arautzen duen ordenantzak hainbat eremu publiko aurreikusten ditu horiek egin ahal izateko. Lehenengoan, esaterako, bi gune zehaztu dituzte: udaletxe osteko loraetegia eta Iturrigorri frontoia. Eskoriatzan, berriz, herriko lau toki berezi jarri dituzte horretarako: Ibarraundi museoan, Udal Pilotalekuan, Santa Marina plazan eta Eduardo Gorosarri plazan, hain justu ere. Horiez gain, landaguneetan ere antolatzeko aukera dute herritarrek udalerri bietan. Auzo-alkateek izendatutako lekuetan egin ahal izango dira, betiere alkatearen oniritziarekin.


Jokatu
Gorbeiako Erruleta
Eta irabazi 6.000€!
erosketa txarteletan
eta gainera 8.000 sari ziur baino gehiago
Eta gainera, egunero sari bat irabaz dezakezu astelehenetik ostegunera
ASTELEHENA 10, txirrinda bat
ASTEARTEA 11, Samsung bideo kamera bat
ASTEAZKENA 12, Gorbeia saski bat
OSTEGUNA 13, Porsche baten egun bateko alokairua
ASTELEHENA 17, kanpin-denda bat
ASTEARTEA 18, Philips home cinema bat
ASTEAZKENA 19, Gorbeia saski bat
OSTEGUNA 20, LG LCD telebista bat
ASTELEHENA 24, Corvette baten egun bateko alokairua
ASTEARTEA 25, 10,2 mega pixel reflex kamera bat
ASTEAZKENA 26, Acer Aspire ordenagailua
OSTEGUNA 27, 2 pertsonentzako asteburuko landa-turismo bidaia
PARTE HARTZEKO GORBEIA MERKATARITZA PARKEKO EDOZEIN ESTABLEZIMENDUTAN 20€-TIK GORAKO EROSKETA EGIN BEHARKO DUZU.
2010eko Maiatzaren 7tik 29ra balio duen promozioa.
Oinarri osoak Gorbeian eskuragarri.
GORBEIA
Gehien aurrezten duzun tokia
Carrefour
DECATHLON
Norauto
BRICO DEPÔT
i'm lovin' it
merkal calzados
King Jouet
YELMO CINES DIGITAL 3D
MUEBLES MAX DESCUENTO
CIMER el outlet del electro
SAMIRA
IMAGEN21

**JENDARTEA** > IZENDAPENA

# Ainhoa Sanchez, Miss Euskadiko irabazle

Aretxabaletarrak asteburu osoa Creamoda moda jaialdian desfilatzen igaro du eta oraindik ez du jasotako saria ospatzeko astirik izan



Ainhoa Sanchez. JOSETXO ARANTZABAL

**I. BARANDIARAN / J. BEREZIBAR** > ARETXABALETA

Euskadiko neskarik ederrenaren koroa jantzi zuen zapatu gauean Barakaldoko BECen Ainhoa Sanchez aretxabaletarrak. Miss Araba titulua eskuratu eta Miss Gipuzkoan ohorezko dama izendatua izan eta gero, 2010eko Miss Euskadi da, 1,80ko altuera eta 90-61-93 neurriak dituen 23 urteko gaztea.

Modelo lanaz gain, azken aldian Euskal Telebistako *Uyyy* umorezko kirol saioan hartzen du parte Sanchezek eta bere kabuz Psikologia ikasten ere dihardu.

### GALARA, LANETIK JARRAIAN

Ainhoa Sanchezek asteburuan ez du atsedenaldirik izan. Hain zuzen ere, goiz eta arratsalde Barakaldon bertan, BECen, Creamoda izeneko moda jaialdian desfilatzen aritu izan da. Domeka iluntzean, handik bueltan, tartetxo bat egin zigun aretxabaletarrak.

"Zapatu goiza desfilatzen pasa ostean, miss-en galara jo nuen inongo eten barik; eta urduri jartzeko astirik ere ez nuen izan. Horrek lagundu ninduela uste dut", azaldu zigun Sanchezek. "Izan ere, urduritasunak asko jartzen du jokoan, larregi".

Hala, kontatu zigunez, inoiz baino hobeto pasa zuen galan, disfrutatzeko aukera izan zuen. Sport, bainu eta gala paseak egin eta elkarrizketa pertsonala egiterakoan, lasai asko zegoen. "Nik uste elkarrizketa egiterakoan epaileek oso natural ikusi nindutela eta horrek lagundu zuela; izan ere, miss oso ederrak zeuden eta harritu nintzen".

### OSPATZEKO ASTIRIK EZ

Behin saria jasota -koroa ez diote irabazleari ematen, banda bai ordea- gurasoekin afaldu eta Aretxabaletan kalera irten zen lagunekin tabernan elkartu eta izendapena ospatzera. Baina, goiz etxeratu zen; izan ere, domeka osoa Creamodan desfilatzen pasa zuen berriro ere.

Sariarekin oso pozik dagoen arren, egunerokotasunean murgilduta jarraitzen du Sanchezek. Desfilatzen eta bere kabuz Psikologia ikasten jarraituko du, ekaina bukaeran-edo (oraindik ez diote ziurtatu) Miss Espainiako galarako deituko dioten arte.



Sokatiran gogor ibili ziren gazte eta nagusiak. JOSETXO ARANTZABAL

**JENDARTEA** > TXOLARTE JAIA

# Atzegiko aisialdi taldeek jaia ospatu zuten Arrasaten

Atzegiko bazkideek eta begiraleek "guztia eman zuten" jokoan eta dantzan

**I.B.** > ARRASATE

Txolarte Atzegi elkarteko aisialdi taldeek osatzen dute; halako 11 talde daude Gipuzkoa osoan eta horietako bat Bergara eta Arrasatekoek osatzen dute. Urtero herri desberdinetan elkartzen dira eta aurten Arrasateko Uarkapeko pilotalekuan.

Atzegiko partaideak eta begiraleak batuta 400 lagun izan ziren zapatuan frontoian, eta lehia, jokoa eta jaia izan ziren nagusi goizetik hasi eta arratsaldera bitartean.

### DANTZA BATEN

Agur dantzaren ostean, arto bilketa, sokatira eta beste egin zituzten. Lehenengoan Legazpi-Urretxuko taldea izan zen irabazle eta bigarrenean, Azpeitikoa. Eguerdian Arrasate ezagutu eta arratsaldean, berriz, diskoteka izan zuten Elvis Caino DJarekin.




Goiena, egoitza berrian Bergaran

Aurrerantzean, Bergarako Irizar jauregian beharrean,
**Bergarako Ibarra 6n aurkituko gaituzue**
(lehen, Arcelorren bulegoak),
Labegaraietako elizaren ondoan.

**Eskelak, zorion agurrak eta iragarki sailkatuak jartzeko,**
edo beste edozertarako, bertan gaituzu.

**Harrera:** 10:00-13:00 / 15:30-18:30 **Telefonoa:** 943 25 05 05 **Faxa:** 943 25 05 12 *www.goiena.com*

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

**Oskar Zapata** > Nafarroako Topaguneako arduraduna

# "Gobernuaren estrategia da euskaldunok txikitu, iraindu eta autoestimuan eragitea"

**G. ARANA / J. BEREZIBAR** > ARRASATE

**Kontseiluak manifestazioa deitu du Iruñean zapaturako, Nafarroan euskaraz bizitzeko eskubidearen defentsan. Ahalik eta jende gehien erakarri gura dute Nafarroako euskaldunen eskubideak defendatzeko. Euskararen egoera "itogarriaren" erradiografia azkarra eskatu diogu Zapatari.**

**Nafarroako Gobernuaren jarrera itogarritzat jo duzue.**

Batzuetan ezkutukoa eta besteetan ageriagoa da estrategia: euskarazko seinaleztapena kentzen dute, beste zenbaitetan administrazioko langileak dira... Trabak asmatu egiten dituzte eta etenik gabeak dira, baina beti modu ankerrean jarduten dute.

**Eskaeretako bat da euskaltegiko ikasleei Gobernuak eman diezaiela egindako ahalegin ekonomikoaren kopuru bera.**

Euskaltegi publiko bakarra dago eta hor ez dira kabitzen inondik inora euskara ikasi nahi duten guztiak. Gainontzekoei urterik urte murriztu egiten dizkiete laguntzak eta ikaslearen gain geratzen da karga ekonomikoa ia osorik. Hori ez da onargarria. Hizkuntza politika maltzurra dute abian jarria.

**1986ko legeak ezarritako hiru eremuen banaketa ere arazo iturri bihurtu da.**

Hona datu esanguratsu bat: Nafarroan bizi garen euskaldunen erdia baino gehiago Iruñerrian bizi gara eta gune hori ez dago eurek "eremu euskaldun" deitzen duten horretan, baizik eta "zona mistoan". Hain garrantzitsuak diren administrazio-harremanak asko zailtzen ditu horrek. Euren "zonalde ez euskaldunetan", adibidez, ezinezkoa da eskola publikoetan euskarazko ereduak aukeratzea.

**Madrildik bi milioi euro agindu zaizkie Nafarroako ikastolei. Aringarria izango da, behin behinean gutxienez?**

Behin behinean, dudarik ez. Pentsatu beharra dugu Lodosako irakasleak, adibidez, aspalditik kobratu gabe daudela eta Ikastolen Elkarteak elkartasun poltsa badauka ere, husten joan da murrizketen ondorioz.

**Eta zein da euskarazko aisialdiaren egoera, adibidez?**

Topagunearen lehentasunezko arloa da. Iruñerrian eta Ultzaman baditugu 300 bat gazte aisialdi proiektu batean, aurten ehun ekitalditik gora antolatu ditugu, Mintzakiden – hemengo zaharberri – 500 lagun daude… Horietan guztietan Nafarroako Gobernuak aurten inbertituko duena da 32.000 euro . Kargudun baten soldataren erdia dena banatuko dute aisialdi proiektu guztiak finantzatzeko. Hori irain bat da.

**Ika-mika gehien hedabideen egoerak piztu du.**

Urtez urte badirudi erabakitzen dutela zein arlo egurtu gehien, eta iazkoan hedabideei tokatu zitzaien. Topaguneko kideak behin baino gehiagotan batzartu gara Euskarabideakoekin eta aktan jasoa geratu zen iaz 250.000 euro agindu zizkigutela. UPNko Alberto Catalanek kargua hartu eta blokeatu egin zuen guztia atzera ere. Honezkero, *Nabarra* aldizkariak egoitza Nafarroatik Bizkaira aldatu behar izan du, Ttipi-ttapa telebistak eten egin behar izan zuen bere ibilbidea, beste bizpahiru aldizkari kinka larrian daude...

**Aldian behin arlo bat kaltetuz eragile ezberdinen arteko harremanak gaiztotzeko nahia ikusten diezue?**

Bai baina guk ez dugu onartuko; kontziente gara nahita dabiltzala batzuei kentzen besteei emateko. Baina ez da dirua bakarrik, errespetu falta izugarria da eta okerrena da eurentzat txikikeriak direla. Estrategia da euskaldunok iraindu, txikitu eta gure autoestimuan eragitea. Gauza arkaikoekin lotzen gaituzte euskaldunak, beti irainduz, eta bitarteko guztiak alde dauzkate hori lortzeko.



Oskar Zapata. OIHANE ISASI

**"Batzuei laguntzak kentzen dabiltza besteei emateko; giroa gaiztotzeko"**

**"Urtez urte badirudi alor bat egurtzea erabakitzen dutela. Iaz: hedabideak. "**

**"Euskaldunen erdia baino gehiago Iruñerrian bizi gara eta ez da 'eremu euskalduna' "**

MANIFESTAZIORAKO AUTOBUSAK

- > **Izenematea:** Euskara elkarteetan.
- > **Epea:** maiatzaren 13a.
- > **Ordua:** 16:00etan, Arrasatetik.
- > **Irteera:** Garibaitik. Durango - Eibar - Arrasate ibilbidea egingo du autobusak.

etxeko leihotik



**Inaxio Arregi** > 'zuzen@goiena.com'

## Agur eta ohore Loiola irratiari

Jesuitek (Herri Irratiaren jabe ohiek) COPEtik banandu eta egitasmo autonomo bat eraikitzea erabaki zutenetik bide zaila egitea egokitu zitzaion Loiola Irratiari. Lehiakide indartsuak egokitu zitzaizkion; euskal kate publikoa bereziki. Euskarazko eta gaztelerazko bi aukeren aurka egin behar izan du lehian egitasmo "elebidun" batekin.

Herri Irratiko aurreko gerentziak sare indartsuago bat eraiki nahi izan zuen. Arrasate Irratia bereganatzen ere saiatu zen. Uste izan zuen irrati gehiago diru-sarrera gehiago ekuazioa akats gabekoa zela. Azkenean Noticias taldeari saldu behar izan diote irratia, zorrak itota.

Seguru nago *Herri irratia-Onda Vasca* berriak bere tokia aurkituko duela gaztelerazko euskal talde multimedia indartsu baten barruan. Entzuleak ere irabaziko ditu, gaur gaurkoz gaztelerak hobeto saltzen duelako. Baina Loiola irratia, sasoi batean euskararen eta askatasunaren ikur izan zena, gure aitona-amonen denbora betetzen jakin izan zuena, errosario eta eguneroko mezarekin; erdal mundu dominantean euskaltzaleen arreta pizten zuena, Loiola irrati hori betiko joan zaigu.

Galera honek ez du negar asko eragingo, entzule gutxi geratzen zitzaizkion-eta. 2.000 baino ez zizkioten ematen azken neurketek. Bizi bedi betiko Loiolako herri irratia.

**"Euskararen eta askatasunaren ikur izandako Loiola irratia betiko joan da"**

**> Euskara politizatu**
**eta inposatu nahi izan da. Matrikulazio datuek diotenez geroz eta euskara gehiago nahi du gizarteak. Demokrazia herritar guztien edo gehiengoaren gobernua da. Gehiengoak euskara nahi badu...**

**> Beste batek**
**aurretik egin izanak ez dio meriturik kentzen norberak egindakoari. Pasabanek egindakoa hainbat gertaerek itxuragabetu dute. Bakoitzari berea. Iritziak iritzi, handia da emakume honek lortutakoa.**

**BAKETIK** > AUTOEZAGUTZA

## Bi saiotan elkartasuna eta sufrimendua landuko dute

Datozen bi zapatuetan izango dira ikastaroak Gandiagan

**J.B.** > ARRASATE

"Gure burua hobeto ezagutzeko" ikastaro sortarekin aurrera egingo du Baketik-ek maiatzeko azken bi zapatuetan, 22an eta 29an. Antolaturiko hiru saioetatik azkeneko biak izan dira eta elkartasuna eta sufrimendua dira landuko dituzten arloak. Ohi bezala, Gandiaga Topagunean izango dira saioak, 30 euro bakoitza, goizez 9:30etatik 13:30era eta arratsaldez 15:00etatik 17:30era.

**"GURE BURUA HOBE DEZAKEGU"**

Ikastaroen funtsa da hori eta maiatzaren 22koan boluntariotza eta elkartasun konpromisoa hobetzea izango da helburua; elkarteetan boluntario gisa dihardauten edo beharrak dituzten jendearekin konpromisoa dutenei zuzenduta. Maiatzaren 29ko saioan sufrimenduari aurre egiteko gako nagusiak azalduko dituzte.

**OSASUNA** > SENDAGAIAK

# Arrasateko udalbatza, botikak ondo hartzearen alde

Aho batez onartu du etxez etxeko laguntza jasotzen dutenendako farmazia zerbitzua jartzea

Eskoriatzan, joan den urteko irailean abiarazi zuten zerbitzu hori, eta emaitza onak ari da ematen


Eskoriatzako alkate Pedro Lasagabaster Botikarien Elkartekoen azalpenak entzuten. GOIENKARIA

**U. MADERA-M. BITERI** > ARRASATE
Joan den astean aurreratu genizuen moduan, etxez etxeko laguntza jasotzen dutenendako farmazia zerbitzua jarriko da laster Arrasaten. Eguen arratsaldean eginiko bilkuran, udalbatzak aho batez onartu zuen programa horretan sartzea. Horren bidez, gaixoek sendagaiak hobeto hartu edo erabili ahalko dituzte.

Orain, Arrasateko Udalak eta Gipuzkoako Botikarien Elkarteak horren gaineko hitzarmena sinatuko dute; ziurrenik, asteon bertan sinatuko dute. Jarraian, parte hartzeko proposamena egingo diete herriko farmazialariei eta etxez etxeko laguntza jasotzen dutenei, nahi izanez gero, programan parte har dezaten.

Onartzen dutenei zerbitzuaren funtzionamenduaren gaineko oinarrizko azalpenak emango dizkiete farmazialariek etxez etxeko laguntzaileei, eta baita etxean nagusiak zaintzen dituzten senitartekoei ere.

**ARRASATEN, 240 LAGUN**
Gizarte Saileko teknikari Iñigo Garitanok programa "aste gutxitan" martxan jarriko dela dio. Azaldu du Arrasaten, egun, 240 pertsona daudela etxez etxeko laguntza jasotzen dutenak. Horiexek izango lirateke, hortaz, onuradunak; oraingoz, horiendako bakarrik dago-eta zuzenduta. Edozelan ere, Garitanok gaineratu du asmoa dela denborarekin adineko pertsona guztiei zabaltzea.

Bailarako bigarren herria da Arrasate horretan interesa agertzen duena. Joan den urteko abuztuan, Eskoriatzako Udalak eta Gipuzkoako Botikarien Elkarteak programa bera hitzartu zuten, eta hilabete geroago martxan jarri zuten udalerri horretan.

**SEI ESKORIATZAR**
Eskoriatzan, gaur egun, 27 herritar inguru dira zerbitzu hori erabiltzen dutenak, eta programa martxan jarri zenean, bik onartu zuten horretan sartzea. Kopuru hori, dena dela, handitzen joan da denborarekin, eta gaur egun, dagoeneko sei eskoriatzar daude horretan sartuta. Udaleko Gizarte Saileko teknikari Agurtzane Altubek jakinarazi digunez, zerbitzu hori jasotzen dutenak "oso pozik" daude, zerbitzua "oso erosoa" delako.

**PASTILLA-KAXETAN**
Funtzionamenduari dagokionez, herri bietako teknikariek aipatu dute erabiltzeko samurra dela. Pertsona bakoitzak aste osorako behar dituen botikak farmazian bertan prestatuko dizkiote, pastilla-kaxetan behar bezala banatuta daudela. Hala, pertsona hori zaintzen dutenek pastilla-kaxak etxera eraman besterik ez dute izango. Hamabost egunerako beste botika prestatuko diote, gainera, farmazian.

Garitanok adierazi du zerbitzu berriak helburu bikoitza duela: batetik, herritar bakoitzak beharrezkoa duen medikazioa behar bezala har dezan laguntzen du. Garitanoren arabera, "jende asko dago egunero 20 pastillatik gora hartu behar dituena; horien kudeaketak arazo larriak sortzen ditu. Hori saihestu nahi dugu; hau da, medikuak agindutako botikak behar bezala hartzen direla bermatu nahi da".

Bestetik, botiken arrazoizko erabilera bideratzea bilatzen du. Izan ere, botikak farmazian bertan prestatuz gero, pertsona bakoitzak beharrezkoa duena bakarrik kontsumituko du, eta ez orain moduan, botika kaxa osoak erosi beharra izaten dutela.

Dena aurreikusi bezala irteten bada, hemendik aste gutxira zerbitzu berria izango dute, beraz, etxez etxeko laguntza jasotzen duten arrasatearrek.

ESANAK

**"Jende asko dago egunero 20 pastillatik gora hartu behar dituena; horrek arazo larriak sortzen ditu"**

**Iñigo Garitano** > Arrasateko Gizarte Saileko teknikaria

DATUA

**6**
**ESKORIATZAR**

Horixe da, Eskoriatzan, farmazia zerbitzua jasotzen duten lagun kopurua. Hasieran, bik eman zuten izena; denborarekin, apurka handitzen doa kopurua.

**OSAKIDETZA** > KRISIA OSASUNGINTZAN

## Gastuak murrizteko anbulatorioak zapatu goizetan itxiko dituzte Oñatin eta Gatzagan

Inguruko zentro handiagoetara bideratu gura ditu pazienteak Osasun Sailak, krisiari aurre egiteko neurri bezala

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE
Zapatu goizetan eta jaiegunetan itxita egongo da anbulatorioa Oñatin eta Gatzagan Osakidetzak egindako proposamenak aurrera eginez gero. Sindikatuei dagoeneko aurkeztu die Rafael Bengoaren sailak asmoa; eta itxierez gain, proposamenak irekita dauden zentroetan zerbitzua areagotzea ere aurreikusten du.

Krisiari aurre egin eta gastuari eusteko ahaleginetan astebururu eta jai egunetan asistentzia gutxien duten zentroak itxiko ditu Osasun Sailak, hain zuzen.

**IA ERDIKA ITXIKO DITUZTE**
Zapatu goizetan irekitzen dituzten 104 anbulatorioetatik 46 ixtea da Osakidetzak sindikatuei azken bileran proposatutakoa. Debagoienean Oñati eta Leintz Gatzagakoak itxiko lituzkete eta bertako erabiltzaileek inguruko beste herrietako anbulatorioetara jo beharko dute aurrera eginez gero. Hala eta guztiz, Osakidetzaren asmoak zentroen murrizketa badakar ere, gutxitze hori zabalik egongo diren zentroetan zerbitzuaren gehikuntzarekin konpentsatuko luke Osakidetzak. Gipuzkoan zehazki, 33 zentroetatik 10 itxiko lituzkete zapatu goizetan eta pazienteak zentro handiagoetara bideratu.

**HEZKUNTZA** > MONDRAGON UNIBERTSITATEA

## Eredua ezagutarazteko ate irekiak daude etzi Oñatin

Maiatzaren 20an, 17:30ean, Arrasateko Ingeniaritza Eskolan egingo dituzte

**M.B.** > OÑATI
Asteon ate irekiak egingo dituzte Mondragon Unibertsitatean (MU), bere hezkuntza eredua azaltzeko. Etzi, eguaztena, Oñatiko Enpresagintza Fakultatea ezagutzeko aukera izango dute etorkizuneko ikasleek zein guraso, irakasle eta orientatzaileek. Arrasateko Goi Eskola Politeknikoan, maiatzaren 20an (17:30ean) eta ekainaren 12an (11:00) egingo dituzte.

Egunotan ere egon dira horrelakoak. Eguen arratsaldean, Arrasateko Campuseko Ingeniaritza Eskolakoaren berri eman zuten, eta zapatu goizean, Eskoriatzan. Bi orduko bisitetan, nork bere eskaintza akademikoa aurkeztu zuen. Otsailetik ekainera MUk 19 jardunaldi eskainiko ditu, gaur egun dituen bost campusetan.

Abantailaz
betetako kluba!

Goiena kluba



# Lagunaro GBCren 100. partidurako sarrerak opari. Nahi?

Goiena Klubeko bazkide baldin bazara, deitu **943 25 05 05** zenbakira eta

**LORTU SARRERA BI DOAN***

* Lehenengo 15 deiek bakarrik jasoko dituzte sarrerak.

GOIENA KLUBA | Telefonoa: **943 25 05 05** | e-posta: ***kluba@goiena.com***



Udaleko Ongizate Sailak antolatuta nerabeei zuzendutako hitzaldia egin zuten egubakoitzean Elgetan. Arrats elkarteko kideak arduratu ziren nerabeekin berba egiteaz; batez ere, nerabezaroak dakartzan aldaketak, adin horretan gertatzen diren arrisku jarrerek izan ditzaketen ondorioak eta adin txikikoen legea aztertu zituzten Elgetako kultura etxean.

**Jose Mari Larrañaga** > Arrats elkarteko kidea

# "Nerabe izateak bihurri izatea dakar, kontua da nola bideratzen den hori"



Arrats elkarteko Jose Mari Larrañaga, Elgetan. A.E.

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

**Arrats elkartea Pasai Antxon sortu zen orain dela 11 urte. Hasiera baten, kartzeletan lan egiten zuten, presoekin; hala, gizarte-bazterketa egoeran daudenekin lan egiten hasi ziren. Jose Mari Larrañaga Arrats elkarteko kideak azaldu digu zertaz jardun zuten Elgetan.**

**Zeintzuk dira nerabezaroan ematen diren aldaketak?**

Gazte batek aldaketa mordoa izaten ditu nerabezaroan: alde batetik, nortasunaren lortzea egoten da; baina baita gorputz aldaketak, sexualitatea, identitatea... Erreferente bat bilatu gura izaten dute, eta nahaste handiko garaia izaten da.

Gainera, oso garai garrantzitsua izaten da, hor garatzen daeta pertsona baten identitatea. Etapa arriskutsua eta era berean polita izaten da. Aldaketa horiek ondo bideratzea izaten da gakoa.

**Hartzen dituzten jarrera arriskutsuez berba egin duzue. Zeintzuk dira jarrera arriskutsu horiek?**

Betikoak direla esan daiteke. Gertatzen da oraingo gizartean beste faktore batzuk ere sartu direla; adibidez, Internet. Baina gehienak izaten dira aste bukaerekin zerikusia dutenak: zer egiten dugun, alkohola, drogak, sexua, eskola-porrota, borrokak, lapurretak...

**Esan ohi da nerabeak alkoholarekin eta drogekin limitean ibiltzen direla. Nola jakin daiteke non dagoen limite hori?**

Nire ustez, limitea dago batek ez dakienean zertarako hartzen dituen drogak. Jendeak uste du kontrolatzen duela, baina benetan ez da horrela. Jendeak ez dio bere buruari galdetzen zergatik hartzen dituen drogak. Gustuko ditudalako hartzen ditut, edo benetan arazo larri bat dudalako atzean? Gazteek asko jokatzen dute horrekin, baina benetan ez dute kontrolatzen. Ni urte askoan ibili naiz drogekin eta ez dut ezagutzen kontrolatzen duen inor.

**Nerabeak zergatik sentitzen dira arraro? Zergatik uste dute denak euren aurka daudela?**

Hori gaztetasunean askok izan dugu! Euren identitatea lortzen ari dira, eta borroka horiek izaten dituzte helduekin, baina baita euren adinekoekin ere. Modu batekoa gura dute izan, baina gainontzekoek beste modu batera pentsatzen dute... Hala, arazoak sortzen dira.

Esan behar da gaztea izatea bihurria izatea dela, eta hori oso ona da. Kontua da nola bideratzen den. Gurasoekin loturak hautsi gura izaten dituzte, eta hori oso sanoa da. Arazoa da mozketa horiek sano egiten ez direnean, berba egin barik: isilean eta gaizki planteatuta.

**Bihurria izatea nerabeak berezkoa du.**

Bai; bihurria izatea, nire ustez, ona da. Gaizki dagoena da eskuetatik ihes egitea eta ez jakitea mozten. Pertsona guztiek izan behar dute familiakoekin edo ingurukoekin lotura bat.

Gainera, garrantzitsua da gaztea identitate talde baten sartuta egotea. Nonbaiten bere pentsaera eta izateko modua azaltzeko lekua behar du gazteak. Gehienetan, familia edo lagunak izaten dira; lagun onak izanez gero, ondo, baina lagunek zuk baino arazo gehiago izaten badituzte, maldan behera joateko arriskua dago.

ARRISKUAK

**"Arrisku gehienek aste bukaerarekin zerikusia dute: alkohola, drogak, sexua..."**

LEGEA

**"Adin txikikoen legea asko gogortu da 1995a ezkero; jendeak ez du ezagutzen"**

GURASOEN KEZKA

**"Gurasoen kezka izaten da euren semearengan zelan eragingo duen zigorrak"**

**Zuen hitzaldietan, batez ere, adin txikikoen legea zer den azaltzen duzue.**

Adin txikikoen legea 14 urtetik 18 urte bitartekoa da. Ez gaztetxoek, ezta haien familiartekoek ere ez dakite zelan funtzionatzen duen legeak. Gazte batentzat, zerbait egitea izugarrizko astakeria izan daiteke; baina, lege aldetik, astakeria horrek zigorra izan dezake.

Azaltzen dugunean zelan dagoen adin txikikoen legea beldurtuta geratzen dira. Ez dakite, Donostian, adibidez, porro batengatik 400 euroko isuna jartzen dutela.

**Gainera, orain, adina jaitsi egin gura dute.**

Bai; aztertzen dabiltza 14 urtetik 13 urtera jaistea adin txikikoen legearen adina. 1995a ezkero asko gogortu da legea.

**Lapurreta batengatik, adibidez, ze zigor jaso dezakete?**

Lapurreta txiki bategatik, normalean ez dute zigor gogorrik izaten, aske geratzen dira. Baina guk ikusten dugu behin lapurtu duenak bigarren aldiz ere lapurtzen duela. Bigarrenean gogorragoa izaten da zigorra: lan sozialak egin, zentro baten lagundu edo Zumarragako zentrora bidal dezakete.

**Gurasoen kezkak eta nerabeenak berdintsuak izaten dira?**

Oso ezberdinak izaten dira! Gurasoen kezka nagusia izaten da: "Nire semeari zer gertatzen zaio? Drogetan sartuta dago...". Eta, legeari dagokionez, euren kezka da zer pasatu beharko duten. Hau da, zigorrak ze eragin izango duen euren semearengan aurrerantzean.

Gazteen kezka, ostera, izaten da ze zigor jasoko duen. Euren buruhaustea izaten da nola libratuko ote diren egin duten horretatik.

# KIBUC GURE AMETSA
## ALTZARIAK ETA OSAGARRIAK

## SUKALDE ETA BAINUETAN ESKAINTZA BEREZIA

**BEZEROAREN NEURRI ETA BEHARRETARA EGOKITUTAKO AURREKONTUAK EGITEN DITUGU.**

- BARNEALDEAK DISEINATU ETA ZAHARBERRITZEN DITUGU.
- URTE ASKOTAKO ESPERIENTZIA DUGUN LANGILE PROFESIONALAK GARA.
- ETXEAN EDOZEIN ERATAKO BERRIKUNTZAK EGITEARI BURUZKO AHOLKUAK EMATEN DITUGU.




KIBUC
altzari eta osagarriak
Azkenean gure etxean

gureametsa@kibuc.com
Landeta Hiribidea, 1 - 20730 Azpeitia
Tel.: 943 15 16 81

KIBUC Gure Ametsa
altzari eta osagarriak

www.kibuc.com

>> proiektu eta erreformak >> gremioen koordinaketa >> proiektu eta erreformak >> gremioen koordinaketa >>

## kale inkesta

# Goi-mendizaletasuna eztabaidaren jomugan dago azkenaldian. Lehiak zapuztu du kirola?



**Maite Perez de Ziriza**
Langilea
Arrasate

Lehia egotea normala da goi mailako kirol legez. Batzuek jarraitzen dute helburu bakar moduan mendiaz gozatzen, baina lehia eta dirua ere badaude eta biak iruditzen zaizkit zilegi. Betiere, pertsonaren araberakoa da.



**Marije San Jose**
Langilea
Donostia

Dirua behar da eta ahalik eta lehiakorrena izan behar duzu. Kirol garbia zela ere saltzen zuten, zaborrik ez zutela uzten eta hori ez da egia. Meritua sherpek dute eta gehiago ordaindu beharko litzaieke haiei.



**Molly Chambers**
Langilea
Estatu Batuak

Mendia gozatzeko da eta gailurrera iristean dago garaipena, nork gehiago eta lehenago lehiatu barik. Ni eskalatzailea naiz eta ez zait gustatzen, dirua tarteko, mendizaletasunak hartu duen itxura.



**Angel Oruna**
Langilea
Arrasate

Ni ez naiz Everesteko kanpamendu basean egon, baina esaten dutenez zabortegia da. Hor ikusten da zelan ez den kirola beti saldu izan duten bezain garbia. Lehiaketa da, gainontzeko kirolak bezalaxe.

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

## goienkaria@goiena.com

ARRASATE

**> San Frantziskoko errotondako errepidea konponduta**

Otaloran eta San Frantziskoko errotonda inguruko errepidea konpontzen dabiltza, eta horrek poztuta jo du irakurle batek tarte honetara. "Azkenean hasi dira errepideko zulotzar eta gorabeherak konpontzen" dio irakurle arrasatearrak. Ironia puntutxo batekin zera eransten du amaitzeko: "dagoeneko ez dugu ordezko errubera prest izan beharrik Otalora kalea autoz igarotzerakoan".

ARRASATE

**> Aprendizen eraikinaren erabilera**

Irakurle batek tarte honetara jo du "hobeto aprobetxatu litekeen" Arrasateko zabalguneko eraikin bati buruzko zalantza aurkezteko. Zera dio, "ikusita orain Zerrajera zaharra eta ospitalea arteko gune hori zelako bizitza hartzen dabilen, nola ez da planteatzen Aprendizen eskolari erabilpen on bat ematea? Kulturako edo aisiarako gune moduan, adibidez".

ARETXABALETA

**> Bide zaharra noiz irekiko duten galdezka**

Aretxabaletar batek deitu du kexatzen ea noizko amaituko dituzten lanak eta Aretxabaletako kuarteleko betiko sarrera noiz irekiko duten. Bide batez, "dagokionari eskatzen" dio aipatutako zonalde horretan ere autobus geltoki bat jartzeko, "orain arte autobusa hartzeko herriaren beste puntara" joan beharra daukalako.

## usteak uste

**Jokin Bereziartua**

# 26 urte itxaron, urtebeterako

Oso zaila zegoen, miraritik gertu, batez ere Lagun Onak-ek huts egitea oso arraroa litzatekeelako. Lagun Onak Hirugarren Mailako taldea da gutxienez, eta futbolaren *lege naturalak* dio Azpeitiako taldea ezin dela Ohorezko Erregional mailara jaitsi. Hori ez da UDAren kasua, eta 26 urte itxaron ostean urtebete bakarrik egin du Hirugarren Mailan. Halako maila batean azken hiru jardunaldietara etxeko lanak egin barik heltzea arriskutsua da oso; taldeen arteko akordioak eguneroko ogia dira-eta.

Hala ere, talde aretxabaletarreko jokalariak modu gazian agurtu dute Hirugarren Maila. Azken jardunaldian euren lana bete ez zuten sentsazioarekin joan ziren etxera, sailkapeneko azken taldea ezin menderatuta. Ea hurrengorako ez diren 26 urte itxaron behar...

## zorroztailea



**Larraitz Ugarte**

# Tribial feminista

"Medikuntza titulua jaso zuen Estatu espainoleko lehen emakumeak nola eskuratu zuen titulua? Horra hor galdera, eta zein ote erantzuna? ba, gizonez mozorrotuta jaso zuela titulua. Izan ere, garai horretan emakumeek ezin zituzten unibertsitate ikasketak egin."

**Oihana Llorente**
Gara > 2010-05-07




Arrasateko eta beste hainbat udalek eta Uribe-Kostako Mankomunitateak bultzatutako ekimen honek berehala merezi izan du nere arreta.Tribial honek orain arte ezkutatu zaiguna ikasten joateko ate bat irekitzen digu. Eta ikasten joateko diot, ziur bainaiz bertan botatzen diren 1.200 galdera horietatik 100 erantzuteko gai ere ez nintzela izango. Ez neu, ez zeu, ez inor. Izan ere, liburuetan eta eskoletan jaso dugun historian emakumeak ez baikara ageri. Agertzekotan ere, emakumearen figura gizonaren konsorte gisa baino ez dugu eskuratu. Inork ez digu esan nor izan zen formula kimiko hura asmatu zuen emakumea edo emakumea noiz izan zen lehen aldiz hautagai munduko herrialde hartan.Emakume iraultzaileak non dira? Historiako protagonistak gizonak dira eta emakumeon ekarpenak gutxietsiak edota enoratuak baino ez dira izan. Gure aurkako jazarpenak eta diskriminazioak gure ekarpenak desagertarazi egin ditu eta honela, noski, eredua beti da gizona.

Horregatik Tribial feminista benetan ekimen txalogarria iruditzen zait eta susmoa daukat hau egiten pasa duten urtea ez zaiela ekintzaileei alferrikakoa irudituko eskoletan eta toki publikoetan behar bezala zabaltzen bada. Nik neure alabei oparitu nahi nieke behintzat. Haiek nik baino zorte hobea izan dezaten eta emakumeon historia,emakumeon lekua historian ezagututa kontzientzia feminista goiztiarra har dezaten. Eta horrekin batera, jakin dezaten emakumeok ikustezin bihurtzen gaituena ez dela gure ezintasuna, patriarkatuaren ezintasuna baizik. Ikasbide horrek beraiek eta euren generazioko neska-mutilek emakumearenganako begirunea berreskuratu eta berdintasunaren aldeko jarrerak garatuko dituztelako.

**"Emakumeon kontrako diskriminazioak gure ekarpenak desagertarazi ditu"**

**"Emakumearen figura gizonen konsorte ageri da"**

Bide batez, izena bera ere txalotu nahi dut, feminismo hitzari batzuek eman nahi dioten konnotazio negatibo faltsua gainditu eta feminismoak euskal jendartearen berdintasuneranzko eraldaketarentzat duen ezinbesteko balio ideologikoaren apologia ausarta egiten duelako. Ongi etorria tribial feminista.

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonooa • 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Asteburuko erredakzioaren arduraduna** Iker Barandiaren **Erredakzioa** Julen Iriondo, Jokin Bereziartua eta Jon Berezibar **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Oxel Arrieta eta Imanol Soriano **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Ibargarai 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

**Arrasate** > 14 **Bergara** > 16 **Oñati**> 18 **Aretxabaleta** > 19 **Eskoriatza** > 19
**Antzuola** > 20 **Aramaio** > 20 **Elgeta** > 20 **Leintz Gatzaga** > 20



**> ARRASATE**
Ordu erdiro pasako da urbanoa iraileitik aurrera; eta Lurraldebus txartela erabili ahal izango da **> 14**



**> OÑATI**
Errekalde eraberritzeko lanak gaur hasiko dira eta lanok zazpi fasetan banatuko dituzte **> 18**



**> ARAMAIO**
Uztailean ospatuko diren San Martin jaietarako kartel lehiaketa zabalik dago dagoeneko **> 20**

**ARETXABALETA** > EUSKARA

# Loramendik "herriari begirako" elkartea izan nahi du ostera ere

**GARAI BERRIA**
Ibilbide berriari ekin dio hausnarketa sakona egin ostean

**AURKEZPEN JAIA**
Proiektua aurkezteko jaialdia egin zuen egubakoitzean

**HIRU ILDO**
Euskaran, kulturan eta aisialdian jardungo du hemendik aurrera euskara elkarteak




Herritar ugari batu ziren egubakoitzean udaletxe zaharreko atarian Loramendi elkartearen egitasmoen aurkezpen-jaian. JOSETXO ARANTZABAL

**MIRIAN BITERI** > ARETXABALETA
Ibilbide berriari ekin dio Aretxabaletako Loramendi Euskara Elkarteak. Urtebetez hausnarketa sakona egin ostean, egubakoitzean aurkezpen jaialdia egin zuten udaletxe zaharreko atarian, elkarteak egoitza duen eraikin berean. Horretan, Karmele Igartua idazle aretxabaletarrak ordu laurdeneko errezitaldia egin zuen, Aitor Ziardegiren eta Oier Sarasuaren musikaz lagunduta. Haiez gain, urteurreneko ospakizunetan murgilduta dagoen Aretxabaleta Abesbatzaren eta Lide Pagaldai eta Lur Gurrutxaga trikitilarien emanaldiez gain, Jurgi Etxeberriaren esketxekin barre egin zuten han batu zirenek.

Elkarteko zuzendaritzako kide Beñat Zamalloak azaldu du elkartearen gaindeko hausnarketa hori etorri zela 2009an Udalak urteko dirulaguntzan egindako murrizketen eta Arkupe kultura etxea martxan jartzearen ondotik. Azken horren harira, gogorarazi du azken urteotan elkarteak egindako lan potoloena kulturagintzan izan dela, eta Arkupek Loramendik egindako papera beteko zuela. Hori dela-eta, aurrera begirako "lerro estrategikoak" zehazteko beharra ikusi zuten.

**%40KO DIRU MURRIZKETA**
Zamalloaren esanetan: "Iaz otsailean egindako mintegitik irtendako pintzeladak fintzen eta koadro bat sortzen ibili gara. Dena dela, azken bi hilabeteak kritikoak izan dira elkartearendako, aurten ere laguntza murriztu egin dutelako eta horri aurre




Aurkezpen-jaian, besteak beste, Aretxabaletako Abesbatzak abestu zuen. J.A.

hartu behar izan diogulako; hortik etorri da teknikari bat kentzeko erabakia eta buru-belarri sartzea hausnarketa prozesu berrian, zehaztuta genituen proiektuak ezin genituelako aurrera eraman, %40ko diru murrizketarekin; 48.000 eurotik 28.000 eurora pasa gara".

**EUSKARA, KULTURA ETA AISIALDIA**
Elkartearen hemendik aurrerako ildoak hiru direla dio, logotipo berrian jasota daudenak: euskara, kultura eta aisialdia. Azken horri dagokionez, nabarmendu du hezkuntzari eta aisialdiari lotutako hainbat herritar daudela 0-16 urtekoen gaineko diagnosia egiten. Zamalloaren arabera, "emaitzak ematen dituztenean, Loramendik zer eskain dezakeen aztertuko da".

Kulturan, bestetik, martxan dauden hainbat proiektu aipatu ditu: elkarteen arteko olinpiadak; udalerriko historia lantzen duen eta Euskararen Egunean aurkeztuko duten *Aretxabaletan, lehen eta orain proiektua*; eta *Toponimia proiektua*, besteak beste. Hau da, herriko ibilbideak, lekuen izenak, anekdotak eta istorioak jaso nahi dituzte lan horren bitartez.

Hirugarrenik, euskarari dagokionez, besteak beste, orain dela hainbat urte elkarteak martxan jarri zuen proiektua berreskuratu egin nahi dute, merkataritza euskalduntzea bilatzen duen *Sustatze proiektua,* hain justu. Horiez gain, orokorragoak diren ekimenak garatzen jarraituko du, hala nola helduen eta gaztetxoen bertso eskola, ikastaroak eta emanaldiak.

Horrekin guztiorrekin, Loramendi herritarrei gerturatu gura diote: "Herriari begirako elkartea izan nahi dugu ostera ere, herritarrengandik jasoko duena eta herriari eskainiko diona. Herritarrak horren jabe izango dira". 430 bat bazkide ditu elkarteak.

**OÑATI** > SAN MIGEL TXIKIAK

# Berrikuntzekin ospatu dituzte Oñatiko kale zaharrenaren jaiak

Mendiko bizikleta irteera berreskuratu eta bisita historiko gidatua asmatu dute

Egubakoitzean euri apur bat izan zuten arren, eguraldiak on egin die jaiei



Auzoko emakumeek bazkaria egin zuten domekan. MIREN ARREGI



Bitter Honeyko Aitor kantuan. J.A.



Gerardo Elortzak Kale Zaharraren gaineko bisita historiko gidatua egin zuen. MIREN ARREGI

**IKER BARANDIARAN** > OÑATI
Asteburuan Oñatin San Migel Txiki jaiak ospatu dituzte, herriko urteko lehen jai handiak. Berez Kale Zaharrekoak dira ospakizunok, baina erdiguneko hain kale ezaguna izanda eta herritarrek izaten duten jai gogo handiagatik giro eta parte-hartze itzela egon ohi da.

Aurten ere hala izan da: egubakoitz arratsaldetik astelehe-neko ordu txikietara ez da etenik egon, eta jaiak euri apur batekin hasi zitzuten arren, ekitaldi guztiak egin dituzte.

**ZAPATUA, ETEN BARIKOA**
Egubakoitzeko kontzertuan, Asfiksia, Bitter Honey eta Sexty Sexers taldeen hard-rockak jende dezente batu zuen txosnaren inguruan.

Zapatuan, berriz, trikipoteoak, eta txorizoak eta saldak jende ugari batu zituzten. Beste batzuek, ordea, nahiago izan zuten mendi bizikleta hartu eta irteera egitea. Hala, 15 bat lagunek jai horietako irteera berreskuratu eta Araotz eta Arantzazu aldera jo zuten. Horren ostean, bazkalosteko nagikeria kentzeko, herri kirolak izan zituzten: *Biurri*-k eta Florez *Naparra*-k aizkorarekin eta aitzurrarekin erakustaldia egin zuten. Horien atzean Iparraldeko jokoak eta lazto jasotzea egin zuten. Giroa paregabea izan zen, eta euskal giroa areagotzeko, Segurako talogileek postua jarri zuten.

Bitartean, txikienek puzgarrietaz, tailerretaz eta txorimaloetaz gozatzeko aukera izan zuten; eta haiek ere ez zuten siesta egin nahi izan.

Eguna bukatzeko, gazteek zein nagusiek *sua* eman zioten dantzalekuari Triki Ta Ke taldearekin.

**DOMEKAN, 'AZKEN KARTUTXOAK'**
Atzo, domeka, ekitaldi berri bat gehitu zioten egitarauari: Kale zaharrean bizi den Gerardo Elortzak etxerik etxe bertako biztanle, gremio eta pasarteen gaineko ibilaldi historikoa egin zuen. Adin askotako jendeak esku hartu zuen eta askok pasarte gehiago gehitu zioten kontaketari.

Bestalde, kaleko emakumeen bazkariak 50 bat lagun batu zituen Anton tabernan eta gainontzekoek ere bazkaria egin zuten (aurten komisioak deialdia zabaldu egin du, gainera) Kale zaharrean. Bazkal ostean, mus jokoa, dantzariak eta bertsolariak izan zituzten aukeran. Eta jaiak behar den moduan bukatzeko, iazko talde bera ekarri zuten erromeria egitera: Miren, Agur eta Gorka. Datozen San Migel jaietara gutxiago falta da!

**ESKORIATZA** > AITZORROTZ EGUNA

## Adin askotako eskoriatzarrek ospatu zuten herriko kultur talde ekimentsuaren jaia

Umeen tailerrak, bertsolariak, taloak eta magia ikuskizuna izan ziren egitarauari gehitu zizkioten berrikuntzak



Umeendako tailerrak, herriko artisten eskutik. JOSETXO ARANTZABAL

**I.B.** > ESKORIATZA
Herenegun, zapatua, Aitzorrotz kultura elkarteak III. Aitzorrotz Eguna antolatu zuen, eta eguna ekimenez lepo bete zuten. Hala ere, ospakizunak egubakoitz gauean hasi zituzten, Arrasateko Kañeria 13 punk taldeak Inkernu tabernan egin zuen iragarri bariko kontzertuarekin. Taberna goraino bete zen, jakina.

Zapatua, berriz, umeen tailerrekin, taloekin eta txistulariekin hasi zuten. Horri guztiari Jon Maia eta Amets Arzallus bertsolarien balkoiko saioak eta triki-bertso poteoak jarraitu zioten. Bazkarirako, berriz, 130 lagun elkartu ziren; herriko plazan egin zuten. Han ere bertsolariek eta trikitilariek giroatu zuten mahaiaren buelta.

**DANTZAN BUKATU ZUTEN**
Arratsaldean, ostera, Patxi Biribar magoak ikuskizuna egin zuen; eta Maixa, Maite eta Inesen erromeriak dantzan jarri zituen plazan batutakoak.



J.ARANTZABAL

## Kurtzebarriren jaia, kalera

Kurtzebarriko Batera guraso elkarteak zapatuan Herriko Plazan egin zuen ikasturte bukaerako jaia. Mahai futbol, ping-pong, txinga, globo eta tortilla txapelketak egin zituzten; eta baita Mihiluze erraldoia ere. Horrez gain, bigarren eskuko azoka jarri zuten, eta Hiruatxek bidezko merkataritzarena. Heldu eta txikiek ikaragarri ondo pasa zuten.


Munibe plazako karpan festa giroa izan zen nagusi. JOSETXO ARANTZABAL

**DANTZA** > ERROMERIA

# Giro alai eta jatorrean, gorputzak erantzun zuen arte aritu ziren dantzan Bergaran

Azken asteotako erromeria saioei amaiera eman zioten begararrek; afarian 100 bat lagun izan ziren

**JOKIN BEREZIARTUA** > BERGARA

Duela hiru aste Moises Azpiazu dantza taldearen erakustaldiarekin hasi ziren erromeria saioak festa giroan amaitu ziren zapatuan.

Herriko kaleak kalejiran girotu ostean, dantza saioa egin zuten Munibe plazan Bergarako dantzari eta herritarrek. Eta emanaldiaren ostean, afari herrikoia egin zuten plazako karpan. Erromeriaren antolakuntzan aritu den Juantxo Urbieta Abarka dantza taldeko kideak jakinarazi duenez, 100 lagun inguru batu ziren afarian. Menua: barazki-menestra, biribilkiak –redondo– eta tarta. Giro jatorra izan zen nagusi afarian; eta afalostean, noski, dantza izan zen protagonista. 02:00ak arte etengabe aritu ziren dantzan.

**ZUMARRAGARREN GIROTZE-LANAK**

Zumarragako dantzariek ere bat egin zuten jaialdiarekin eta girotze lan bikaina egin zutela adierazi du Urbietak: "Zumarragakoek kasta berezia dutela argi geratu da; euren ondoan bergararrok oso hotzak gara".

Musika entzun bezain pronto, dantza bizian jartzen ziren Goierriko dantzariak, eta jarrera horrekin besteak ere dantzan jarri zituzten. Urbietak zumarragarren girotze-lan "bikaina" eskertu gura izan du.

**MUNIBEKO KARPA, "OSO EGOKIA"**

Bestalde, Urbietak Munibe plazan karpa jartzea "oso egokia" dela deritzo: "Euria hasi zen afal aurretik, eta karparik gabe ezingo genukeen baldintza egokietan egin". Dantzarako zein beste hainbat ekitaldietarako karpa oso erabilgarria dela uste du Urbietak.

Hala ere, jaialdiaren ekitaldi nagusiak Munibe plazara eroatea ez du hain ondo ikusten: "Munibe nahiko urrun geratzen da jendea mugitzen den gunetik, hara zoazenean ekitaldira espresuki zoaz; Irala kalean, esaterako jende gehiagorengana zabalduko litzateke". Udalak Munibe plazari bultzada ematea gura dio eta horregatik proposatu zien jaialdia hor egitea.

**AISIALDIA** > OLINPIADAK

# Uretan gozatuz eta lehiatuz ederto ibili ziren gaztetxoak

Agorrosingo igerilekua hartu zuen Jardunek olinpiaden hirugarren zapaturako

**J.B.** > BERGARA

Bergarako Jardun euskara elkarteak gaztetxoen aste bukaeretako aisialdirako eskaintza handitzeko asmoz antolatzen dituen olinpiaden hirugarren jardunaldia egin zen zapatuan. Agorrisongo igerilekuan denetariko proba eta jolasak egin zituzten. Besteak beste, atea saski zuen waterpoloan eta ur azpiko uztai-jasotzean aritu ziren.

**60 GAZTETXO BAINO GEHIAGO**

Olinpiadek lau zapatu irauten dute; azkena falta da. Azken zapatuan Jarduntxio elkarteko maskota protagonista duen jokoaren txanda izango da; frogaz beteta egongo den mahai jokoaren amaierara iritsi beharko dira gaztetxoak.

Antolatzaileak pozik daude aurten ere 60 haur baino gehiago daudelako. Gainera, asko inplikatzen direla diote.


Uretan ere oso gustura lehiatu ziren gaztetxoak. JOSETXO ARANTZABAL



**ZERBITZUAK** > GARRAIOA

# Orduro beharrean ordu erdiro pasako da urbanoa, irailetik aurrera

Autobus urbanoaren zerbitzua bikoiztea ez da aldaketa bakarra izango: urbanoaren erabiltzaileek Lurralde Bus txartela ere erabili ahalko dute

**U. MADERA/J. BEREZIARTUA** > ARRASATE
Autobus urbanoak ordu erdiro emango du zerbitzua, orduro beharrean. Irailetik aurrera areagotuko da zerbitzuaren maiztasuna; hala erabaki zuen udalbatzak azken osokoan. Ordutegia ere finkatu dute, 8:00etatik 21:30era. Urbanoa bi puntutatik aterako da 8:00etan: Eroskitik aterako da autobus bat eta Gorostizatik bestea. Eta hurrengoa, bigarren lineako autobusa, ordu erdi geroago aterako da puntu bi horietatik. Azkenekoak, berriz, aterako dira 20:00etan linea batekoa eta 20:30ean bigarren lineakoa.



Autobus urbanoa, San Frantzisko biribilgunearen ondoan dagoen geltokian herritarrak jasotzen. GOIENKARIA

**ASTEBURUAK ETA EGUN BEREZIAK**
Zapatuetan ordubete geroago aterako dira –09:00etan–, eta bukatu ere beranduago bukatuko dute –22:00etan–. Hori bai, zapatuetan ordubetero pasako da geraleku bakoitzetik. Azkenik, orain arte moduan, domeketan ez da urbano zerbitzurik egongo. Bestalde, urbanoak ordutegi berezia izango du abuztuan eta zubietan. Bi kasuetan 09:00etatik 21:00ak arte ibiliko da autobusa, eta ordubetero behin pasako da geltokietatik.

**AUTOBUS BI GEHIAGO**
Zerbitzua handitu ahal izateko autobus kopurua handitu egingo dute. Egun hiru erabiltzen dituzte; bada, zehaztu dute bost autobus beharko dituztela: lau etengabe bueltaka, eta beste bat kasu berezietan erabili ahal izateko.

**LURRALDEBUS TXARTELAREKIN**
Bestalde, bada berritasun aipagarri bat: Lurraldebus txartela erabili ahal izango da aurrerantzean. Horrek esan gura du, noski, aplikatuko dituztela txartel bakar horrek eskaintzen dituen abantaila guztiak.

Hona txartelen prezioak: billete arrunta 1,35 euro kostako da, baina %40ko deskontua izango dute hilero 40 bidai baino gutxiago egiten dituztenek. 41 eta 70 arteko bidai kopurua egiten dituztenek, berriz, 0,72 ordaindu beharko dute; eta hilero 71 bidai baino gehiago eginez gero, azkenik, 0,12 euro ordainduko dute bidaiako.

**OSASUNA** > ALZHEIMER

## AFAGIk ekitaldia egingo du bihar Kulturaten, gaixoak zaintzen dituztenei begira

Elkartea zer den azaldu eta dementzia gaixoen ondoan daudenek laguntza nola jaso dezaketen jakinaraziko dute

**J.B.** > ARRASATE
AFAGI alzheimerraren aurkako elkarteak topaketa egingo du bihar Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan (17:00). Gurera datoz, ez dute-eta elkartearen jarduna Donostialdera bakarrik mugatu nahi; Debagoienean ere sakonago lan egitea da AFAGIren asmoa.

Hala, bihar elkartea zer den azaldu eta alzheimer eta bestelako dementzien gaixoak zaintzen dituztenek laguntza nola jaso dezaketen emango dute aditzera. Izan ere, halako kasuetan gaixoa ez da erabat jabe gertatzen zaionaz, eta Lucerok adierazi duenez, gaixoa zaintzen duenaren "inplikazio eta ezagutzaren araberakoa" izango da gaixoaren bizi-kalitatea. Hortaz, egunero ondoan dagoena da gaixotasuna sufritzen duena.

Hala, Lucerok honakoa gaineratu du: "Gure helburua gaixoa zaintzen duena zaintzea da eta ekitaldian zaintzaileak egoerari nola aurre egin dakiokeen azaltzen saiatuko gara". Ekitaldian Koldo Aulestia AFAGIko presidentea eta Maria Victoria Lucero elkarteko psikologoa izango dira.

**ELKARTEKO KIDE EGITEKO DEIA**
Bestalde, Lucerok gaixotasunarekin batera bizi direnei AFAGIko kide egiteko gonbita egin die: "Doakoa da, eta modu pertsonalizatuan egiten dugu lan".

ESANAK

**"Gaixoa zaintzen duena zaintzea da helburua; zaintzaile egoerari nola aurre egin azalduko dugu"**

**Maria Victoria Lucero** > AFAGIko psikologoa


Besteak beste, Erguin auzoko Udalpe kalean eman ziren lapurretak. J.B.

**GERTAERAK** > LAPURRETAK

## Autoetako kristalak hautsi, aparailu elektrikoak osteko

**J.B.** > ARRASATE
Azken asteetako joerari jarraituz, lapurretak ez dira eten azken egunotan. Joan den egubakoitz goizaldean Erguin kaleko Udalpe kalean hiru autoetako kristalak hautsi zituzten aparailu elektrikoak eramateko. Kaltetu batek jakinarazi duenez, 8:30ean, lanera joateko autoa hartu behar zuenean konturatu zen lapurretaz. Besteak beste, betaurreko batzuk lapurtu zizkioten. Inguruan zeuden beste bi kotxetan ere sartu ziren eta aparailu elektrikoak eraman zituzten. Hiru auto, beraz.

**HALAKO ALBISTEETARA OHITZEN**
Udalpe kalean bakarrik ez, auzoko beste kale batzuetan –Kalealdean eta Etxeazpian, besteak beste– ere eman ziren lapurretak, Udaltzaingoak jakinarazi duenez.

Bestalde, herritar batek *www.goiena.net* Interneteko atariaren bitartez, lapurreten gaineko kexa adierazi gura izan zuen: "Aspaldian halako albisteetara ohitzen ari gara; lapurretak tabernetan, etxeetan, autoetan... Ez dakit zein neurri har daitezkeen baina espero dut udaltzainak pilak jarriko direla ".

**INGURUMENA**

## Udalatx babesteko eskaera Jaurlaritzari

Mendia Biotopo Babestu izateko eskaera egingo dio Udalak Jaurlaritzari

**J.B.** > ARRASATE
Udalbatzak onartu duenez, Udalak Udalatx Biotopo Babestu egiteko eskaera egingo dio Jaurlaritzari. Babes figura hori onartuko balu, landaretza bereziari gaur egungoa baino garrantzi handiagoa aitortuko liokete erakundeek, eta inguru hura dagoenetan mantendu beharko litzateke. 600 hektarea inguru babesteko eskatuko du Udalak.

**BABESTU BEHARRA**
Alternatiba-Zutik koalizioko Joseba Ugaldek gogoratu zuen Udalatxek dagoeneko nahikoa kalte jasan dituela eta AHTak oraindik kalte gehiago egingo dituela. EAJk, bestalde, izendapena eman aurretik "bizilagunen partehartzea" eskatu du.

**Ester Bellver** > Antzezlea

# "Agertokian biluzik nagoelako, antolatzaile asko ez dira ausartzen nire obra eskaintzera"

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

**Emakume Txokoaren eskutik, Ester Bellver antzezlea *protAgonizo* lanarekin etorriko da Kulturatera, maiatzaren 26an (19:00). Aretxabaletan estreinatu zuen, iaz, eta Bergaran ere izan da; orain Arrasateren txanda da. 26 urte inguruko ibilbidea duen antzezle esperientziaduna, lehen ikuslea bere burua dela dio, "besteen eraginek" asko harritu ohi duteeta. Obra "interesgarria" dela uste du; horren itxura badu behintzat.**

**Zer da eta nondik dator *protAgonizo*?**

Lehenago idatzi nuen *Yo pro-ta-gonizo* izeneko testu luze batetik aukeratutako testuak dira, egokitzapen bat. Bakarrizketa moduan aurkezteko antzezlana da: emakume bat bere irudiari begira dago ispilu batean, bizitzako azken aldagela irudikatzen duen lekuan. Ispilutik emakumearen aurpegi ezberdinak islatuko dira, adin ezberdinetako garaiak. Azkenean protagonistak ezingo du bere burua ezagutu, aurkezten diren pertsonaia guztiaren parte delako; eta beraz, bat bera ere ez da.

Emanaldiak irauten duen ordu eta erdian ordena kronologikorik gabeko bizitza baten ibilbidea kontatzen da.

**Zein da lanaren helburua?**

Ez du helburu zehatzik; norberaren buruaren aurrean harridura sentitzea, akaso. Izatea bera zalantzan jartzen da, baita antzerkiak eskaintzen duen denboraren jokoa bera ere. Hala, ikuslea bat dator, identifikatua sentitzen da eta hunkitu egiten da ikusten duenarekin. Izan ere, komuna eta, era berean, sakona den zerbait ikusten du bere begien aurrean.



*ProtAgonizo* antzezlanaren une bat. ROTURA PRODUCCIONES

**"Ikuslea bat dator, identifikatua sentitzen da eta hunkitu egiten da ikusten duenarekin "**

**"Adin guztietan errealitatearen kontra ematen diren talkak azaleratzen dira obran"**

**Biluzik zaude agertokian. Arazorik izan al duzu horregatik?**

Nire biluzia naturala da, baina kontua da gizarte honetan biluzik joatea ez dela naturala. Ikusleek, adierazi izan didatenez, emanaldiaren bigarren minuturako biluzia ahaztu egiten du eta hori oso pozgarria da. Horrek adierazten du ikusleek gainditu dituztela bekatu-konnotazioak eta aurreiritzi pornografikoak.

Hala ere, hainbat arazo sortu dizkit antzezlana zabaltzerakoan. Ikuskizunen antolatzaileak, oro har, ez dira nire obra eskaintzera ausartzen. Jantzita egiteko egokitzapen bat eskatu izan didate, baina ezetz esaten diet. Pentsatzen jarrita, baina, barregarria litzateke biluzik nagoela irudikatzen duen jantzi batekin egitea... Emakume Txokoak eman didan aukera eskertu gura dut, proposamen ausartekin bat egitearren.

**Nori dago zuzenduta?**

Nik ez dut 18 urtetik gorakoendako bakarrik dela esaten. Adibidez, jakin badakit behin ikusleen artean neskatxo bat zegoela eta bere gurasoen harridurarako, antzezlana oso adi jarraitu zuela. Ikuskizuneko une batzuetan neskatxo bat naiz eta esango nuke bere burua identifikatuta ikusi zuela. Finean, adin guztietako jendea hunkitzeko moduko antzezlana dela deritzot; adin guztietan errealitatearen kontra ematen diren talkak azaleratzen dira.

**Antzezten duzun lekuan arrakasta izan duzu, oro har. Gustura, ala?**

Obra poztasun iturria izan da niretzat. Beti diot ni naizela lehen ikuslea, besteen eraginek asko harritu ohi naute.

**KULTURA** > ERAKUSKETA

# Zumetaren obra ikusgai, Iñigo Arregirenean

## Zumetaren obra grafikoaren erakusketa zabaldu du Arregik, Kulturateko erakusketarekin batera

**J.B.** > ARRASATE

Iñigo Arregi artista arrasatearrak Jose Luis Zumeta artista usurbildarraren obra grafikoa erakusgai jarri zuen apirilaren 30ean. Hau da, Zumetak Kulturaten *Oi Bihotz!* erakusketa zabaldu zuen egun berean, Maala kaleko dendan. Egun berean zabaldu eta egun berean itxi.

Izan ere, maiatzaren 30era arte egongo da zabalik Arregiren dendako erakusketa. Dendaren ordutegi bera izango du erakusketak berak, eta beraz, goizetan zein arratsaldetan zabalik egongo da.

**ASPALDIKO LAGUNAK**

Erakusketa zer dela-eta zabaldu zuen galdetuta, Arregik dio Zumetaren laguna eta haren lanaren jarraitzailea delako zabaldu duela. Aspaldiko lagunak dira Arregi eta Zumeta; duela 30 bat urte ezagutu ziren. Hala ere, eskultore arrasatearrak ez du sekula erakusketa bat zabaldu Zumetarekin, baina urte horietan guztietan ez dute harremana galdu.

DATUA

**16**

**LAN IKUSGAI**

Arregiren dendan Zumetaren 16 lan daude ikusgai, Usurbilgo artistaren obra grafikoaren adierazle. Lanotatik lau originalak dira eta 12 serigrafiak; badago zer ikusi, beraz.



Iñigo Arregi, bere dendan, atzean Zumetaren lanak dituela. J.B.

**HERRIGINTZA**

# Orhipean elkartearen jaia izango da zapatuan

## Kultur eragintza taldeak egun osorako egitarau antolatu du maiatzaren 15erako

**J.B.** > ARRASATE

Maiatzaren 15a egun berezia izango da Orhipean kultur eragintza taldearendako. Izan ere, askotariko ekitaldiz osatutako egun osorako egitaraua antolatu dute, eta herriari prestatu dituzten ekintzetara hurbiltzeko deia egin die.

**PARRILLADA FERRERIASEN**

11:00etan hasiko dira ekintzak; orduan muralgintza tailerra egongo da Irati taberna kanpoan. Ordu erdi beranduago, haurrendako jolasak izango dira eta 13:00etan trikipoteoa egingo dute herriko kaleetan. Gero, 15:00etan, parrillada egingo dute Ferrerias kalean. Txartelak Irati eta Basatin daude salgai, 10 eurotan. Eta egunari amaiera borobila emateko, Never Surrender taldeak joko du Iratin, 18:00etan.

> HEZKUNTZA

### Bedoñabeko haurreskolarako izenematea, zabalik

Bedoñabe haurreskolako matrikulaziorako epea zabalik dago, eta maiatzaren 14a, egubakoitza, izango da izena emateko azken eguna. 2009an edo 2010ean jaiotakoei zuzenduta dago.

Izena emateko Musakolako egoitzara (943 79 76 86) edo Bedoña auzokora (943 79 13 03) deitu behar da. Lehena Alfontso VIII. kalean dago eta bigarrena, berriz, Elkano kalean. Ordutegia honakoa da: 9:00etatik 15:00etara.

> ELKARTEAK

### Kiroleko teknologia hizpide duen hitzaldia Danok-Bat elkartean

Elkartearen 75. urteurrenaren barruan, maiatzaren 12an, eguaztena, kirolean erabiltzen den teknologiaren gaineko berbaldia egingo dute Danok-Bat elkartean. Futbola, bizikleta eta kirol oinetakoak hartuko dituzte abiapuntu, eta Mikel Zubillaga EHUko irakaslea, Iñaki Arratibel kirol medikua eta Guillaume Mathieu kirol oinetakoetan aditua izango dira hizlari gonbidatuak.

**JENDARTEA** > PERTSONAIAK

# Telesforo Arantzadi jaio zela 150 urte dira aurten

Haren ikasteko eta sortzeko grinak ez zuen mugarik izan; haren idazlanetan argi ikusten da zientziari eta Euskal Herriari zien maitasuna

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Telesforo Arantzadi Bergarako seme oparoaren jaiotzaren 150. urtemuga da aurten. 1860. urtean jaio zen eta hiru urte besterik ez zuela Bilbora joan zen bizi izatera gurasoekin; hala ere, ez zuen jaioterria sekula ahaztu. Hain justu, Unamunotarren amak –Miguel Unamuno idazlearen ama–, hots, Telesfororen amamak, La Vergaresa gozotegian lan egin zuen.

Arantzadik Farmazia ikasketak egin zituen, ez zientziarako zaletasuna zuelako bakarrik; oso herrena zenez, bere ezintasun fisikorako lanbide sedentario egokia iruditzen zitzaiolako ere bai. Ikasketak amaitzean, aparteko saria jaso zuen *Estudio sobre los insectos vesicantes en sus aplicaciones a la farmacia* lanarengatik. Sari horren ondotik beste asko etorriko ziren.

**JAKIN-MIN IZUGARRIA**

Haren ikasteko eta sortzeko grinak ez zuen mugarik: Alcala kaleko ganbara baten antropologia saila sortu, garezurrak sailkatzeari ekin eta lan horren emaitza euskal arrazari buruzko *El pueblo euskaldun* azterlan zientifikoan jaso zuen; lan horrekin Parisko Antropologia Elkartearen saria jaso zuen 31 urte zituela. 1895. urtean Granadako Unibertsitateko Farmazia Fakultateko Mineralogia eta Zoologia katedra eskuratu zuen; geroago, Bartzelonako Botanika Deskriptiboaren katedra ere eskuratu zuen, eta unibertsitate hartako dekano izan zen 1907ra arte.

Nazioartean ere hainbat lan egin zituen; besteak beste, 1910ean kide titular izendatu zuen Historia Natural, Antropologia eta Etnografiaren Lagunen Moskuko Elkarte Inperialak; bi urte geroago, Argentinako Daktiloskopia Elkarteko ohorezko kide bihurtu zen. 1919an Portugalgo Antropologia eta Etnografia Elkarteko kide urgazle izendatu zuten; eta 1920an, Bartzelonako Unibertsitateko Zientzia Fakultateko Antropologiako katedradun.

**EUSKAL HERRIA BIHOTZEAN**

Historiaurrea eta etnografia oso gogokoak zituen eta Euskal Herrian herriz herri eta mendiz mendi ibili zen, haitzulo, leize, harpe eta trikuharri ia guztiak ikertzen. Askotan Eguren eta Aita Barandiaran izaten zituen lagun. Bergarako Idurixoko haitzuloa, esaterako, 1927an arakatu zuten.

Arantzadiren idazlan guztietan –Jon Bilbao bibliografoak 220 lan katalogatu ditu– ederki ikusten da zientziari eta Euskal Herriari zien maitasun handia. Bere ahalegin handiaren ondorioz, 1936an Itziarko Urtiaga haitzuloan euskal garezurrik zaharrena aurkitu zuen, bost urtez buru-belarri ikerketa neketsuak egiten jardun ondoren. Garezurra Goi Paleolito Madeleine aldikoa zen, eta, aurkikuntza haren ondorioz, milaka urte lehenago finkatu ahal izan zuten euskal arrazaren jatorria. Berrikuntza horiek guztiak hainbat argitalpenetan eman zituen ezagutzera, eta handik urte batzuetara zientziaren onespena lortu zuen.



Telesforo Arantzadi, epaitegi aurrean. INDALEZIO OJANGUREN

**JAIAK**

## Pazkoetako bazkarirako txartelak salgai daude

**M.B.** > BERGARA

Pazkoetako astelehenean egingo den herri bazkarirako txartelak salgai daude eta eskuratu ahal izango dira maiatzaren 13ra bitartean Ariznoa eta Pol-Pol tabernetan eta kultura etxean. Prezioa da 15 euro helduendako eta 10 euro, 10 urtetik beherakoendako.

Menua da: patatak errioxar erara, txahal ragouta eta etxeko hostopila. Edariak, ogia eta kafea prezioaren barruan daude.

Zeliakoendako aparteko bazkaria behar dutenek txartelak erosteko epea bukatu aurretik kultura etxean jakinarazi behar dutela adierazi dute Kultura arduradunek.

**IKASTAROA**

## Osasuntsu jateko ikastaroa Angiozarren

**M.B.** > BERGARA

Angiozarko Haizeberri zentroak udaberri-uda sasoiko sukaldaritza osasuntsuari buruzko ikastaroa antolatu du. Hiru saio izango dira, maiatzaren 15ean eta 29an eta ekainaren 12an. Prezioari dagokionez, matrikula da 60 euro eta saio bakoitza beste 20 euro. Ikastaroak atal teorikoa eta praktikoa izango ditu.

Izena emateko edo informazio gehiagorako deitu 676 64 89 07 (Inmaculada Ortiz de Orruño) eta 662 34 78 04 (Antton Otaola) zenbakietara edo idatzi mezua *inma.joseluis@gmail.com* helbidera.

**HIRIGINTZA** > ETXEBIZITZAK

# Tasatutako 76 etxetarako eskaera epea zabaldu dute

Urteagan eta San Lorentzon egingo dituzte etxeok eta epea da ekainaren 24ra arte

**M.B.** > BERGARA

Urteaga kalean –16-B-4 exekuzio unitateko 1. partzelan– 24 etxebizitza tasatu eta San Lorentzo-Aitziturrin –A-40-a-1 areako 6. partzelan– 52 etxebizitza tasatu zozketatzeko baldintzak onartu ditu Udalak, eta baita etxeotarako eskaerak egiteko epea zabaldu ere. Tasatutako etxe horiek garajea eta trastelekua izango dute.

Eskaerak udaletxean egin beharko direla aurreratu dute Udaleko iturriek; bigarren solairuan dagoen bulego teknikoan, ekainaren 24a baino lehen.

Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu udaletxeko bulego teknikora, 943 77 91 68 telefono zenbakira.

**BARRAKAK ETA TXOSNA**

Maiatzaren 18tik ekainaren 2ra arte Mendekoste jaiak ospatuko dira, eta "kanposantu ondoko lursaila feria, jostaleku eta postuekin okupatzeko" kontratua egiteko lehiaketa antolatu du udalbatzak. Eta, hain justu ere, maiatzaren 12ko (eguaztena) 12:00ak dira lehiaketara aurkezteko epemuga.

Informazio gehiagorako zein baldintzak eskuratzeko, jo udaletxeko idazkaritzara.

Horrez guztiaz gain, Mendekosteetan Udalak San Martin plazan jarriko duen txosna ustiatzeko lehiaketa ere deitu berri dute.

Interesatuek instantzia bidez aurkeztu beharko dute txosna ustiatzeko eskaria eta mugaeguna da maiatzaren 11 (martitzena) 12:00etan, udaletxeko idazkaritzan.



Besteak beste, barraken izenen gaineko oharrak jaso dituzte banatutako diptikoetan. GOIENKARIA

**EUSKARA** > KANPAINA

# Pazkoetan bertako euskara erabiltzeko kanpaina abian

'Gehixago eta hobeto' programaren barruan, jaietako terminologia jasotzen duten diptikoak banatu dizkiete ikasleei

**EDU MENDIBIL** >BERGARA

*Gehixago eta hobeto* programaren barruan, eta Pazkoak gainean ditugula aprobetxatuta, jaiei buruzko euskarazko azalpen eta ariketak kaleratu dituzte. Aratusteetan egin bezala, 1.400 diptiko inguru banatu dituzte haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikasleen eta haien gurasoen artean. Helburua bikoitza da: alde batetik Bergarako euskararen erabilera bultzatzea eta, bestetik, ohikoak diren euskarazko akatsak zuzentzea.

*Etxekuan oiñarri* lelopean, *Gehixago eta hobeto* programaren bultzatzaileek kaleratu dituzte diptikook. Hain zuzen ere, Udaleko Euskara zerbitzuak, Jardun euskara elkarteak, San Martin eskolak, Mariaren Lagundia ikastolak, Aranzadi ikastolak, Ipintza institutuak eta Eibarko Berritzeguniak.

Pazkoei begira kaletatutako diptikoetan, besteak beste, barraken izenen inguruko oharrak, jaien izenen ingurukoak (*Pazkua domekia* eta *Pazkua lehenengua*, esate baterako) edota gaztetxoei zein gurasoei zuzendutako ariketak jaso dituzte.

**IKASTETXETAN BANATU**

*Gehixago eta hobeto* programa 1999an jarri zuten abian eta ordutik unitate didaktiko ugari atera dituzte. Haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako ikasleei zuzendutakoa izan da material gehiena, baina DBHko ikasleek ere parte hartu izan dute programan. Hain zuzen ere, herriko ikastetxeak arduratzen dira euren ikasleen artean materiala banatzeaz.

Orain, ahozkotasuna lantzeko materiala gertatzen dihardute programako arduradunek.

## Erabilera zuzen batzuk

- *> Ohe elastikuak: camas elásticas*
- *> Puzgarrixak: hinchables*
- *> Zaldiko-maldikua: tio-vivo.*
- *> Txu-txu trena: tren chu-chú*
- *> Igela: "la rana"*
- *> Olagarrua: pulpo*
- *> Matxinsaltua: saltamontes.*
- *> Zaldiko-maldikuetan ibiltzeko zoratzen nago!*
- *> Eguaztenian barraketan ibiltzen bazara, merkiagua da.*
- *> Gabeko hamabixak arte ibiltzeko baimena daukat*
- *> Aitta, olagarruan buelta bat emongo dogu?*
- *> Ama, lagako dostazu matxinsaltuan ibiltzen?*
- *> Auto-txokietan ibiltzeko gogoratu lehenengo fitxia hartu bihar dozula.*
- *> Ene! Txu-txu trenian ibiltzeko sekulako jendeilaria dago.*
- *> Aurten be igelian buelta bat egingo dogu, ezta?*
- *> Nik amarekin ibilli nahi dot, bestela billurra emosten dost eta.*
- *> Lo hartu dozu ala? Bostak arte zure zain egon naiz plazan!*
- *> Maiatzaren 22tik 26ra arte itxita dago.*
- *> Pazkua domekia edo Pazkua lehenengua.*
- *> Pazkua astelehena edo Pazkua bigarrena.*
- *> Pazkua martitzena edo Pazkua hirugarrena.*

**KIROLA**

# Agorrosingo informazioa mezuen bidez

SMS eta e-posta bidez informazioa jasotzeko 1.500 eskaera jaso dituzte

**E.M.** > BERGARA

Agorrosin kirolguneko abonatu eta erabiltzaileek SMS bidez eta posta elektroniko bidez jasoko dute kirol instalazioen gaineko informazioa aurrerantzean. Kirol Zerbitzuak aukera hori eskaini zien bazkideei apirilaren hasieran, eta pozik dira kanpainak izandako erantzunarekin: 1.500 erabiltzailek eskatu dute aipatutako zerbitzua eta maiatzaren hasiera ezkero martxan da.

Zerbitzua borondatezkoa eta doakoa dela azpimarratu du Kirol Zerbitzuak. Oraindik ere interesatuek badute eskaera egiteko aukera. Agorrosin kirolguneko harreran eskaera orria bete baino ez dute.

**UDA KANPAINA**

Bestalde, Udaleko Kirol Zerbitzuak aditzera eman duenez, uda kanpaina ekainaren 11n abiaraziko dute aurten. Egun horretan zabalduko dute kanpoko igerilekua.Udako ordutegiari dagokionez, 11:00etatik 20:30etara izango da igerilekua zabalik.



JOSETXO ARANTZABAL

# Mari Karmen Laskurainen erakusketa Nahikarin

Mari Karmen Laskurainek margo erakusketa jarri du Masterrekako Nahikari tabernan. Azken urteotan Juanjo Altunarekin dabil ikasten Laskurain eta Nahikariko erakusketan 17 koadro jarri ditu ikusgai. Oliopinturak dira guztiak eta natura hilak eta paisaiak dira nagusi. Bergarako txokoren bat edo beste ere badago erakusketan jarritako lanen artean. Formatu txiki eta ertaineko lanak dira. Egubakoitzeko inaugurazioan jende asko batu zen Nahikarin. Mari Karmen Laskurainen erakusketa maiatzaren bukaerara arte izango da zabalik.

## oharrak

ERRETIRATUAK

**> San Joxepekoen irteera Gaztelara irailean**

*Gaztelako paisaiak* delako txangoa egingo dute irailaren 18tik 24ra. Izenematea dagoeneko zabalik dago, elkartearen bulegoan. Argibideak erretiratuen egoitzan edo 943 76 30 09 telefono zenbakian.

HITZALDIA

**> Baserriaren egoeraren gaineko hitzaldia hilaren 29an**

Garmendia Ardoek antolatuta, *Baserriaren jatorria eta gaur egungo egoera* hitzaldia izango da hilaren 29an, zapatua, 12:00etan, Pol-Pol tabernan.

HEZKUNTA

**> Helduen Heziketako eskola Martokon**

EPA-HHIkoak dagoeneko Martoko auzoko eskoletan daude. Hain zuzen ere, joan den astelehenean hasi zituzten eskolak egoitza berrian, Martoko kaleko 8 eta 22. zenbakietan. Ikastetxeko arduradunen arabera, normaltasun osoz eta ohiko ordutegian dihardute. Edozein argibidetarako 943 76 44 52 telefono zenbakira dei dezakezue.

GAZTERIA

**> 12-16 urte bitarteko gaztetxoen gurasoekin bilera eguenean**

1994 eta 1997. urte bitartean jaiotako seme-alabak dituzten gurasoendako bilera deitu du Udaleko Gazteria Sailak. Eguenean, hilaren 13an, izango da bilera, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan. Gaztetxoendako antolatzen diren aisialdirako ekintzez gain, alkohol eta bestelako drogen kontsumoari buruzko kontuak izango dituzte aztergai bilera horretan.

ZINEMA

**> 'Paranoid park' filma eguenean zineklubean**

Zineklubeko programazioaren barruan, *Paranoid park* filma eskainiko dute eguenean, hilaren 13an, Zabalotegin, 20:00etan. Hurrengo astean, hilaren 20an, *Déjame entrar* ikusteko aukera izango da.

**ERABERRITZEA** > LANAK

# Errekalde auzoko lanak gaur hasi eta zazpi fasetan egingo dituzte

Eraberritzea Moiua kaleko bidegurutzeko ezkerreko espaloitik hasiko dute

Bereziki zainduko dituzte Matea dendako eta herri eskolako sarrerak



Lehen fasea Moiua kaleko bidegurutzetik Errekaldeko 26. zenbakiraino egingo dute. MIREIA BIKUÑA

**M.B.** > OÑATI

Errekalde auzoa eraberritzeko lanak gaur bertan hasiko dituzte. Udalak eta Obegisa enpresek egindako plangintzaren arabera, zazpi fasetan egingo dituzte lanak. Errekalde auzoko batzordeko kideek argi berdea eman diote plangintzari.

**EZKERREKO ESPALOIAN**

Eraberritze lanak gaur hasiko dituzte. Lehen hiru faseak Moiua kaleko bidegurutzetik Errekalde herri eskolara artean, ezkerreko espaloian egingo dituzte. Laugarren, bosgarren eta seigarren faseak alderantzizko noranzkoan egingo dituzte; hain zuzen ere, eskuineko espaloian. Azken fasea Moiua kalean egingo dute.

Lanak egin behar dituen enpresak zehaztutako epeen arabera, fase bakoitza egiteko bospasei aste beharko dituzte, ezustekorik ez badute.

Fase bakoitzeko lanek irauten duten bitartean, kaltetutako atarietako bizilagunek ezingo dituzte autoak garajeetan sartu, eta etxeetara sartzeko pasabideak jarriko dituzte. Matea dendako eta herri eskolako sarrerak bereziki zainduko dituzte. Bestalde, lanak ezkerreko espaloian egiten dituzten bitartean, zirkulazioa eskuin aldeko espaloi aldera mugituko dute; hortaz, autoak espaloi gainean ez aparkatzeko eskatu du alkateak: "Bizilagunen lankidetza ezinbestekoa izango da. Ahal duten neurrian autoak garajeetan sartzeko eskatuko nieke; edo, gutxienez, langileei ahalik eta kalte gutxien egingo dieten lekuan aparkatzea".

**ZIRKULAZIOA MOZTU**

Lehen fasea Moiua kaleko bidegurutzetik Errekaldeko 26. zenbakira egingo dute; bigarrena, Errekaldeko 20. zenbakiraino; hirugarrena, Errekaldeko 23.era; laugarrena, herri eskolatik Errekaldeko 33. zenbakira; bosgarrena, Errekaldeko 41.era; seigarrena, Moiua kaleko bidegurutzeraino; eta zazpigarrena, Moiua kaleko espaloietan.

Alkateak esan du aldika zirkulazioa moztu egingo dutela, baina dagokion unean oharra pasako dietela bizilagunei.

ESANAK

**"Autoak garajean sartzeko eskatu nieke bizilagunei, edo ahalik eta kalte gutxien egin dezaketen lekuan aparkatzea"**

**Lourdes Idoiaga** > Alkatea

**UDALA** > LAGUNTZAK

## Enpresa txikiendako dirulaguntzak herriko langabeak kontratatzeagatik

Sei hilabeteko lan-jardun erdiko kontratu bakoitzagatik 900 euro emango ditu Udalak eta lan-jardun osoko kontratuengatik, 1.800 euro

**M.B.** > OÑATI

Herriko langabeak kontratatzeagatik herriko enpresa txikiei dirulaguntzak ematea adostu zuen udalbatzak apirileko osoko bilkuran. Laguntzak jaso gura dituzten enpresek ekainaren 15a baino lehen egin beharko dute eskaera udal bulegoan, beharrezkoak diren agiriak aurkeztuta. Bestalde, enpresak kontratatuko dituen langabeen kontratuaren hasiera datak 2010eko maiatzaren 1etik urriaren 1era artekoa izan beharko du.

Enpresa txikiek bi motatako laguntza jaso ahalko dute: sei hilabeteko lan-jardun erdiko kontratu bakoitzarengatik 900 euro jasoko ditu, eta, lan jardun osoko kontratuengatik 1.800 euro. Gainera, enpresa bakoitzak hiru langile kontratatzeko dirulaguntzak jasoko ditu, gehienez. Laguntza horiek bateragarriak dira beste erakunde batzuetatik jasotakoekin.

Dirulaguntza deialdia enpresa txikiendako egin dute; hau da, Europako Batasunaren irizpidearen arabera, hamar langile baino gutxiagoko enpresa eta urteko balantze orokorra bi milioi erditik beherakoa duena izan beharko du. Bestalde, laguntzak emateko orduan bereziki baloratuko dute 35 urtetik beherako gazteak edo emakumeak kontratatzea.

**LANGABE KOPURUA TXIKITZEA**

Enpresa txikiendako dirulaguntzekin hiru helburu bete gura dituzte udal arduradunak: alde batetik, herriko langabe kopurua jaistea (apirilaren 30eko datuen arabera 448 langabe zeuden Oñatin); beste alde batetik, langabeei lanerako esperientzia ematea; eta, azkenik, enpresa txikiei langile berrien kontratazio kostuak murrizten laguntzea.

**GUZTIRA, 36.000 EURO**

Eskaerak aurkezteko epea bukatzen denean laguntzak emateko prozedura abian jarriko dute udal arduradunek. Agiriak aurkeztu dituzten enpresen eskaerak eta erregistroan aurkeztutako ordena hartuko dituzte kontuan. Tokiko Gobernu Batzarrak emango du laguntzen ebazpena.

Udalak, 36.000 euroko partida du 2010eko aurrekontuetan enpresa txikien laguntzei aurre egiteko. Dirua agortu arte laguntzak emango ditu deialdian zehaztutako baldintzen arabera.

**JENDARTEA**

## Erretiratuen kontzertua lekuz aldatu dute

**M.B.** > OÑATI

Gaur hasiko dute erretiratuen astea Pake Lekun. Arratsaldean Aloña abesbatzak, Loli Ordoki bakarlariak eta Xabier Ugarte gitarra-jotzaileak egin beharreko kontzertua lekuz aldatu dute; hain zuzen ere, agustindarren elizan egingo dute, 18:30ean.

Bestalde, bihar hitzaldia egingo dute; eguaztenean San Martinera irteera eta zinema emanaldia; egunean bingo joko berezia; eta egubakoitzean merienda.

Erretiratuen astea bukatzeko ospakizun berezia egingo dute domekan: 12:00etan meza izango dute, eta ondoren bazkaltzeko elkartuko dira kiroldegian.

**LITERATURA**

## Ipuin kontaketa saioa eguenean

**M.B.** > OÑATI

Helduendako ipuin kontaketa saioa egingo dute eguenean, 19:30ean, liburutegian. Hain zuzen ere, Mercedes Alfonso ipuin kontalari kubatarrak Kubako eta Hego Amerikako hainbat istorio kontatuko ditu; besteak beste, magiaz beteriko hitzak, itsasoz bestaldeko ipuin zoragarriak eta ahozko tradiziotik jasotako ipuinak.

**BIRA EGITEN**

Mercedes Alfonso Kuban jaio zen, baina Lyonen (Frantzia) bizi da. Urteak daramatza helduendako ipuinak kontatzen. Egun *Cuentos en apartamentos* birarekin dihardu Ekelekua konpainiarekin.


Galartzara bidean dauden Lausitta kaleko etxe txikiak. M.A.

**ARETXABALETA** > HIRIGINTZA

# Lausitta eta Bolinagako lanak datorren astean hasiko dituzte

Lausittako etxe txikien azpiegitura guztiak berritu egingo dituzte, baita espaloia ere; eta etxeei itxitura berria egingo diete, berdina izan dezaten

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
E Planaren dirulaguntzarekin egingo dituzten lanik garrantzitsuenak esleitu ditu astean Udalak. Lausitta kaleko etxe txikien saneamendu lanak egiten eta Bolinagara doan bidea konpontzen datorren astean hasiko dira.

Lausitta kaleko saneamendu lanak Erga eraikuntza enpresak egingo ditu eta 223.342 eurotan ezarri du kostua. Galartzara bidean dauden etxeetako bizilagunek aspaldi eskatu zuten saneamendu lanok egitea, eta orain, inguru guztia txukunduko diete. Ur zikinen eta euri uren hodiak aldatuko dituzte eta gasaren instalazioa egin; argiteria publikoa ere aldatu egingo dute eta telekomunikazio eta argindar instalazioak egokitu lur azpitik. Bukatzeko, espaloia aldatu eta etxeei itxitura berria egingo diete, guztiek berdina izan dezaten. Lanok egiteko hiru hilabete beharko dituzte.

**BOLINAGAKO BIDEARI EUSGARRIA**
Bolinagara doan errepidea, ostera, Galdiano eraikuntza enpresak konponduko du 124.838 euro erabilita. Arazoa da bidearen zati bateko lurrek behera egin dutela, eta gehiago egin aurretik eusteko moduren bat behar du. Lanok bi hilabetean egingo dituzte eta une batzuetan bide hori itxi egin behar izatea bidea. Halakoetarako, Areantza auzoko Mitarte Garai baserri ondotik dagoen bidea egokituko dute, Bolinagako bizilagunak pasa daitezen. Lanok hasi aurretik batzarra egin gura dute udal ordezkariek Lausitta eta Bolinagako bizilagunekin, gaizki ulerturik ez egoteko.

**JAIAK** > OTALA ZELAI EGUNA

# Paella lehiaketan parte hartzeko izena aurrez ematea komeni da

Lekua egonez gero, domekan bertan ere onartuko dituzte

Zaporea, itxura eta arrozaren puntua baloratuko dituzte

**M.A.** > ARETXABALETA
Domekan, hilak 16, ospatuko da Otala Zelai eguna Aozaratza auzoko zelai ezagunean. Azken urteotan paella lehiaketa antolatu izan du Kultura Sailak, baita arrakasta izan ere. Horregatik, izena aurrez ematea komeni da. Interesatuak Arkupe kultura etxera joan daitezela eta 5 euro ordaindu. Azken eguna eguena da, hilak 13. Lekua egonez gero, egunean bertan ere eman daiteke izena Otala Zelain; guztira, 20 talderendako.

Paella egingo duen talde bakoitzean gehienez hiru lagun egon daitezke; horietatik gutxienez bat 18 urtetik gorakoa. Antolatzaileek jarriko dituzte sua, paella egiteko ontzia eta hainbat osagai: arroza, berakatza, tipula, olioa, koloratzailea eta gatza.

Epaimahaiko kideek zaporea, itxura eta arrozaren puntua baloratuko dituzte. Sari banaketa, ostera, bi taldetan egingo dute eta talde bakoitzeko irabazleak 100 euro jasoko ditu; bigarrenak, 70 euro; eta hirugarrenak, 50 euro.

**ESKORIATZA** > INGURUMENA

# Ehun hondakinen kudeaketa aztergai erakusketa baten

'Formularik iraunkor eta solidarioena' martitzenetik ikusgai Ibarraundi museoan

**M.A.** > ESKORIATZA
Martitzenean hasi eta hilaren 20a bitartean *Formularik iraunkor eta solidarioena:+3Rs=- CO2* izeneko erakusketa egongo da ikusgai Ibarraundin. Ehun hondakinekin, hau da, arropa, oinetako eta antzeko hondakinekin zer gertatzen den jakinarazteko eta era berean hausnartzeko erakusketa da.

**EMAUSEKO 'SINDESPERDICIO'**
Herri guztietan egon arren arropak botatzeko edukiontzi zuriak, ehun-hondakinen kudeaketa, berrerabilpen eta birziklatzearen gaineko informazioa ez da asko ezagutzen. Hori horrela, arroparen kudeaketa nola egiten den ezagutarazteko asmoarekin sortu da *Formularik iraunkor eta solidarioena* kanpaina. Azalpenak emateaz gain, hausnarketarako bidea zabaldu gura dute erakusketarekin, arropen bizizikloa luzeagoa izan dadin. Eta hiru gomendio eman dituzte: arduraz kontsumitu, berrerabili eta birziklatu.

Erakusketan, Emausek sortutako *Sindesperdicio* marka solidarioko materiala egongo da ikusgai eta Emausen tailerretan egindako patchwork handia ere bai.

Erakusketara doazenek argibideak emateen dituen diskoa eskuratuko dute.



Arropak, oinetakoak eta ehun hondakinak botatzeko edukiontzia. M.A.

**IKASTAROA** > PATINAJEA

# Patinaje ikastaroak egingo dituzte ume eta helduendako

Goiena Sportek antolatu ditu astean zehar edo aste bukaeran egiteko

**M.A.** > ESKORIATZA
Maiatza eta ekaina bitartean ume eta helduendako patinaje ikastaroak egingo dituzte. 12 orduko ikastaroak izango dira eta bi aukera daude: astean zehar egitekoa, astelehen eta eguaztenean (19:00-20:30); eta aste bukaeretakoa, egubakoitzean (19:00-20:30) eta zapatuan (10:00-11:30).

Kiroldegiko bazkideek 24,75 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, 27,50 euro. Ordainketa Goiena Sporten kontuan egingo da: 2101 0024 19 0012001624 zenbakian, eta kontzeptuan ikastaroa egingo duenaren izena ipini beharko da. Izena emateko azken eguna maiatzaren 20a da.

Hirusta
Jatetxea
Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA



Bañera parkean jaietan egindako jokoak. GOIENKARIA

**ARAMAIO** > SAN MARTIN JAIAK

# Kartel lehiaketako lanak, hilaren bukaerara arte

Bi kategoria bereiztu dituzte: 16 urte artekoena eta hortik gorakoena; eta helduen sari nagusia 150 euro da

**EDU MENDIBIL** > ARAMAIO

Uztailaren 2tik 11ra bitartean ospatuko diren San Martin jaiei begira kartel lehiaketa deitu du Udalak. Aramaioko edozeinek parte hartu ahal izango du lehiaketan; lan guztiek originalak izan beharko dute eta, gehienez, pertsona batek bi lan aurkeztu ahal izango ditu.

Bi kategoria bereiztuko dira adinaren arabera: 16 urtetik bebeherakoendako eta nagusiendako. Gaztetxoen arteko irabazleak 60 euroko bonua jasoko du Elkar dendetan erabili ahal izateko. Nagusien sari nagusia 150 euro da.

Lanak aurkezteko epea maiatzaren 31ra arte izango da zabalik, udaletxean. Argibideak b ertan edo edo 945 44 50 16 telefono zenbakian jaso daitezke.

**KORTEZUBIRA IRTEERA**

Zuiako Koadrilak antolatuta, bertako faunaren Basondoko aterpetxea ikustera joateko irteera izango da ekainaren 6an. Aramaiotik irteera 09:30ean izango da eta itzulera 14:30 aldera. Plazak mugatuak dira eta izenematea maiatzaren 19ra arte dago zabalik. Prezioa 9 euro da. Interesatuek udaletxera jo dezakete.

**GAZTETXOENDAKO TAILERRAK**

Udalak 12 urtetik gorako gaztetxoendako bi tailer iragarri ditu. Hain zuzen ere, *Plantilla tailerra* izango da maiatzaren 22an gazte lokalean, 16:30ean. Gaztetxoek kamiseta, patinetea edo bestelako objekturen bat eraman dezakete, haren gainean marrazkia egiteko. Ekainaren 19an, ordu eta toki berean, kandelagintza jorratuko dute.

**KZGUNEA, HILAREN 17AN**

Hurrengo astelehenean, maiatzaren 17an, Aitor Madrid KZguneko monitorea 16:00etatik 20:00etara izango da. Ona txartela eskuratzeko aukera dago. Horretarako, beharrezkoa da NA eta osasun txartela eguneratuta eramatea. Era berean, hainbat ikastaro eskaintzen ditu KZguneak.

**LEINTZ GATZAGA** > JAIAK

# Iraileko Andramaixak gertatzen hasteko batzarra egingo dute gaur udaletxean

Herritarrekin batera antolatu gura ditu Udalak jaiak, eta interesa duten guztiak joan daitezke gaurko batzarrera (18:00)

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Gaurko, hilak 10, batzarra deitu du Udalak herriko jai nagusiak gertatzen hasteko. Udaletxean izango da (18:00) eta herritarrak ager daitezen gura dute udal agintariek, ahalik eta jai parte-hartzaileenak eta gustukoenak antolatzeko.

**MURRIZKETA AURREKONTUAN**

Irail hasieran dira Andramaixak eta oraindik astia dago antolaketa lanetarako, baina, lehenengo, herritarren iritzia eta gogoa zein den jakin gura dute antolatzaileek. Gainera, jaietarako daukaten aurrekontuaren berri emango dute udal ordezkariek, aurten murrizketa egongo delako, beste diru partida gehienetan legez. Hori guztia jakin ostean hasiko dira irailaren 8ko Ama Birjinaren eguna ardatz duten jaiak antolatzen.

Egitarau osoa dago egiteko oraindik, baina jakinekoa da mendi bizikleta ibilaldia izango dela jaietan. Hala jakinarazi zuen Txirrindulari batzordeak, Udalarekin hitzartu zuelako egitea. Horrekin batera, San Martin eguneko txirrindulari lasterketa ere egongo da uztailaren 4an.

**ELGETA** > AZPIEGITURAK

# Tarteko solairua egiten ari dira Artekaleko biltegian

Udalak laster hustu egin beharko du Patronatuaren eraikinean erabiltzen duen biltegia, eta lekua behar du gauzak gordetzeko

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Udalak Artekalen duen biltegian lanak egiten ari dira. Asteon hasi dira beharrean Amaral de Sousa SL enpresako langileak. "Egunen baten Domingo Iturbe Patronatuaren eraikinean erabiltzen dugun lokala utzi egin beharko dugu", adierazi du udal brigadako buru Fernando Zenitagoiak. "Bertan gordetzen ditugun gauzak nonbait sartu beharko ditugu eta Artekaleko biltegian tarteko solairua egiten ari gara gauza horiei guztiei tokia egiteko".

**PARE BAT ASTEAN PREST**

Zenitagoiak esan duenez, lanek ez dute luze joko. "Pare bat aste inguru", esan du. Amaitutakoan, esaterako, agertokia non kokatu izango dute; eta, horrekin batera, Udala urte hauetan guztietan pilatzen joan den gainerako material guztia.



Barikuan, beharginak, Artekaleko biltegian lanean. LARRAITZ ZEBERIO

**ANTZUOLA** > LEHIAKETA

# Balkoi eta leihoetako lore apainketa sariak, jaietan

Aurten XIV. urtez antolatuko du lore apainketa lehiaketa Udalak

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ANTZUOLA

Udalak XIV. urtez antolatuko du aurten balkoi eta leihoetako lore apainketa lehiaketa,baina aurtengoak berritasun bat izango du. Beste urte batzuetan ez bezala, sariak banatuko dituzte herriko jaietan, uztailean.

Kultura Sailekoek adierazi digute "lehiaketa informala" izaten dela. Edonork parte har dezake eta ez dago oinarririk. Udaleko bi ordezkarik kalejira egiten dute herritarrek balkoiak eta leihoak zelan apaindu dituzten ikusteko; eta gero, politenari saria emango diote. Baloratzen dute lore mota ezberdinak izatea, konposizioa, kolorea eta beste.

Orain arte San Juan bezperan eman izan dituzte sariak, baina iaz, eguraldi txarra zelaeta konturatu ziren ez dela garai ona. "Beharbada, goizegi da; horregatik erabaki dugu aurten Antzuolako jaietan ematea sariak", adierazi digute Kultura Sailetik.

**ODOL-EMATEA**

Datorren eguenean, hilaren 13an, odol-ematea egingo dute Olaran etxean. Urteko bigarrena izango da. Hitzordua egin dute Olaranen 17:30erako.

Odol emaileen elkartekoek dei egin dute jendea anima dadin odola ematera.

**MUNDUMIRAKO BILERA**

Gaur, astelehena, Mundumira antolatzen diharduten taldeek bilera izango dute udaletxean, 18:30ean. Parte hartzen edo antolatzen jardungo duten guztiak daude gonbidatuta, talde bakoitza zertan dabilen eta ze asmo dituen zehazteko.



> **FUTBOLA**
Aretxabaletak maila galdu du, Salvatierrarekin hutsean berdinduta > 22-23



> **ESKUBALOIA**
Igoerarako urratsa egin du Bergarak, Egia liderrari 36 eta 29 irabazita > 24



> **ERREMONTEA**
Matxin III-San Migel, Bergara Hiriko lehen bikotea finalerdietan > 25



Jokalariek eta zaleek txaloz eskertu zioten elkarri egindako ahalegina eta emandako babesa.



Usabiaga, azpitxapeldunaren sariarekin.



Maite Carreras, barneraldia egiten.



Olatz Herizen hirukoa hirugarren laurden amaieran.

ARGAZKIAK: JOSETXO ARANTZABAL

**SASKIBALOIA** > GIPUZKOAKO TXAPELKETAKO LAUKO FINALA

# Finala jokatu du Eskoriatzak, baina Iraurgikoak gehiago dira

**FINALERDIA** Gaizki hasi arren, mendean hartu zuten Añorga luzapenean, 62 eta 57

**AZKENA** Aurreneko minutuetatik erakutsi zuten azpeitiarrek baliabide gehiago zituztela

**JULEN IRIONDO** > ESKORIATZA

Azpeitiko Iraurgi saskibaloi klubeko neskak izango dira datorren denboraldian Euskal Ligan jokatuko dutenak. Urte osoan erakutsi duten nagusitasuna baieztatuz, ondo irabazi zioten finala Eskoriatzari. Etxeko neskek, azken garaipenik ezean, Intxaurtxuetan finala jokatu izana eduki zuten sari, azken hiru denboraldietako Lauko Finaletan finalerdietan galdu eta gero.

Oraingoan ere finaletik kanpo geratzeko zorian izan ziren eskoriatzarrak. Zapatuko finalerdian Añorga izan zuten aurkari, aurreko hiru ediziotako bitan Eskoriatza kanporatu zutenak. Fernando Rasoren neskek bazuten, beraz, arantza hori, eta ateratzeko gogoz kantxaratu ziren. Baina gehiegizko presioz-edo, etxekoek ez zuten euren mailarik eman, partidu hasieran batez ere.

Añorgak 10-12 puntuko aldea hartu zuen laster, eta ekinaren ekinez lortu zuten eskoriatzarrek luzapena behartzea. Hirugarren laurdenetik aurrera hasi ziren hobeto defendatzen, eta Añorgakoek ezin izan zuten ordura arteko jokorik egin. Erasoan ere orduantxe hasi ziren baloia ondo mugitzen, aurreneko bi laurdenetan oso eraso laburrak egiten zituzten-eta. Luzapenean, Añorgakoek baino gehiago asmatu zuten Rasoren neskek, eta horrela lortu zuten finalerako txartela, 62 eta 57 irabazita. Beste finalerdian, aurreikuspenak bete egin ziren, baina Iraurgik espero baino zailtasun gehiago izan zituen Cafes Aitonari irabazteko; bi minutu faltan ez zegoen garbi zeinek irabaziko zuen: azkenean, 57 eta 51.

**GARAIPENA GARESTI**

Domekako finalean lehenengo minutuetatik ikusi zen Eskoriatzak oso zaila izango zuela garaipena –7 eta 21 lehenengo laurdenaren amaieran–. Kanpokoek oso ondo ekin zioten partiduari; erakutsi zuten, beste behin ere, baliabide asko dituen taldea dela. Kanpotik asmatzen zuten, barruan ere bai, errebotean nagusi ziren...

Etxekoek ez zuten euren jokoa geratzen asmatzen, eta erasoan, berriz, ez zuten zirrikiturik aurkitzen. Azpeitiarrek askoz ere posizio erosoagoetatik egiten zituzten jaurtiketak, eta asko asmatu zuten. 31 eta 62 amaitu zen partidua. Bi taldeetako jokalariek elkar besarkatu, eta txaloz agurtu zituzten harmailak bete zituzten zaleek.

**Fernando Raso** > Eskoriatzako entrenatzailea

## "Lehenengo zatian bi baloi soilik sartu ditugu barrura"

**J.I.** > ESKORIATZA

**Barruko jokoa zen etxekoen arma, baina ez zuten asmatu. Kirol-legez onartu zuen porrota Rasok.**



JOSETXO ARANTZABAL

**Pena izan da. Aukerarik ez dizuete eman.**

Eurek oso ondo jokatu dute. Bagenekien ze maila duten. Finalerdian ez bezala, finalean euren maila onena eman dute. Geuk ere ez ditugu gauzak pentsatu moduan egin, baina bestela ere euren erritmoa jarraitzea ezinezkoa izan da.

**Zer zenuten pentsatuta ba?**

Barruko jokoa aprobetxatzea zen gure asmoa, baina ez dugu lortu. Lehenengo bi laurdenetan bi baloi baino ez ditugu sartu barrura, eta horrela oso zaila da talde honen kontra. Eurek zazpi jokalari oso onak dituzte, denetik egiteko gai direnak, eta egiten genuena eginda beti topatzen zituzten soluzioak.

**Ezin zaleei garaipenik eskaini, ezta?**

Aurten behintzat finala jokatu dugu, ze azken hiru urteetan finalerdietan kaleratu gaituzte. Bagenekien zaleek erantzungo zutela, beti moduan. Behintzat, saskibaloi asteburu polita izan da.

**HIRUGARREN MAILA** > AZKEN JARDUNALDIA

# Partidu txarra egin ostean galdu

UDAk ezin izan zuen azken sailkatua menderatu; Lagun Onak-en garaipenak aukera barik utzi zuen

Hirugarren mailara igotzeko 26 urte itxaron ostean, ez du maila mantentzeko helburua lortu



Bigarren zatian zelairatu zen Iker Orueta, Salvatierrako atzelari baten aurrean baloia eramateko borrokan. Gordobilek UDAren erasoari haize

**UDA**
**0-0**
**SALVATIERRA**

**UDA** > Gaizka, Raul, Andoni, Kerman, Iban, Ruben, Julen , Borja,, Imanol (Orueta 45. min.), Haritz (Iban 68. min.), eta Gilen (Ander 45. min.).

**Salvatierra** > Alberto, Ruben, Xabier, Imanol (Iban 65 min.), Egoitz, Roberto (Jonatan 51.min), Iker, Didaka, Sergio, Ekaitz eta Eneko.

**Epailea** > Alvaro Masero jauna. Joko aldetik ez zuen oso partidu zaila izan. Zaletuen hainbat kexa jaso arren, nahiko ondo gidatu zuen lehia; zenbait jokalditan ez zuen abantailaren legea aplikatu, akaso. Oro har, nahiko ondo.

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARETXABALETA

Ez da posible izan. Hirugarren Mailara igotzeko 26 urte itxaron ostean denboraldi bakarra eginda Ohorezko Erregional Mailara bueltatuko da UDA datorren denboraldian. Azken jardunaldira egoera kritikoan heldu ziren aretxabaletarrak: Salvatierra menderatu behar zuten eta Lagun Onak-ek ez irabaztea itxaron. Karanbola konplikatua zen, baina azkenean ez zen ez bata eta ez bestea gertatu. UDAk ezin izan zuen azken sailkatuaren aurka irabazi eta Lagun Onak-ek 4-2 irabazi zuen Zallaren kontra.

**LEHEN ZATIA, NAHASIA**

Jende asko hurbildu zen Ibarrara baina harmailak ez ziren erabat bete. Reala ikustera Irunera joango ziren zaletu asko, akaso, bi partiduak ordu berean zirenean. Hori bai, ohi baino jarraitzaile gehiago izan zen zelaiaren ondoan, taldea gertutik animatzeko asmoz. Zaletuen babesak, baina, ez zuen askorako balio izan.

Izan ere, partidu txarra egin zuen etxeko taldeak. Hasierako minututan joko nahasia eta baloi luzeak izan ziren nagusi. Eta baloi jabetza etxeko taldearena bazen ere, arabarrek sortu zuten lehen zatiko aukera garbiena: atzealdeko huts egite batek Salvatierrako aurrelari bat Gaizka Eriz atezainaren aurrean bakarrik utzi zuen 11. minutuan, baina Iban Astola atzelariak garaiz erreakzionatu zuen. Hutsegite hori kenduta, defentsako lan ona egin zuten Igor Gordobilen mutilek. Taldeak asko hobetu du atzealdeko lana, baina denboraldian zehar puntu larregi galdu ditu atzealdeko huts egiteen erruz.

Lehen zatian atzelariek Imanol Rodriguezen hegala bilatu zuten behin eta berriz, baina Roriguezek ez zuen bere eguna izan.

**AZKEN TXANPAN, ABORDATZERIK EZ**

Gordobilek Iker Orueta eta Ander Zenitagoia zelairatu zituen bigarren zatian, erasoari haize freskoa emateko asmoz. Baina zelairatu berriek ez zuten joko nahasia gidatzen jakin. UDAren jokoan sakontasun falta izan nagusi eta partiduko azken txanpan, taldeak aurrera egin zuen arren, ez zen Salvatierrako arearen abordatzerik izan. Aldi berean, txalotzekoa izan zen kanpokoen defentsako lana eta gainera, kontraerasoan izan zuten partidua irabazteko aukeraren bat edo beste. Ordurako zaletuek eta baita aulkian zeuden jokalariek bazekiten Lagun Onak irabazten ari zela eta Hirugarren Mailan mantentzeko esperantza pixkanaka agortzen zihoala.

Azken minututan, korner jaurtiketa baten aukera garbia izan zuten aretxabaletarrek gola sartzeko baina ez zuten area barruko nahasmena aprobetxatu euren eginbeharra betetzeko. Hau da, etxean azken sailkatuaren aurka irabazteko. Ez zen besterako astirik izan; epaileak amaiera adierazi zuen. 0-0 eta datorren denboraldian Ohorezko Erregional Mailara.

**ERREAKZIOAK**

Atsekabetuta irten ziren ikusleak Ibarra futbol zelaitik. Ibai Zangitu jarraitzailearendako "nahigabe handia" izan da UDAk Maila galdu izana: "Urte ezberdina izan da eta horrekin geratu beharko gara, ez dago besterik. Ondo hasi zuten denboraldia baina denboraldi erditik aurrera behera egin dute, eta konfiantzarik ez dagoenean oso zaila izaten da halako egoerei buelta ematea". Horrez gain, taldeen arteko "diru mugimendu arraro" batzuk izan direla uste du Zangituk; azkenik, honakoa adierazi du datorren denboraldiari begira: "Datorren urtean ikusiko da, igotzen badira ondo eta igotzen ez badira ere... Aupa UDA!".

Bestalde, zaletuen artean zegoen Inaxio Garro Aretxabaletako alkatea: "Aurtengo denboraldia ez da ona izan, baina berriro Hirugarren Mailara igotzeko gutxiago falta dela pentsatu behar dugu. Pena izan da; ondo hasi ziren baina gero okertu egin ziren gauzak". Bestalde, uste du "esperientzia eza" ordaindu dutela eta hurrengo baterako prestatuago egongo direla: "Aldea dago Ohorezko Erregional Mailatik Hirugarren Mailara, alde teknikoan zein taktikoan. Ea talde indartsua osatzen duten eta berriz igotzen diren, oraingoan urte gehiagotan Hirugarren Mailan mantentzeko."

Azkenik, Eduardo Altube presidentea atsekabetuta zegoen partiduaren amaieran: "Pena izan da, lehen itzulian 26 puntu ateratzeko gai izango ginelako eta gero behera egin dugulako. Baina, beno, bagenekien urte zaila izan-

**ESANAK**

**"Denboraldi erditik aurrera behera egin dute; konfiantza falta dagoenean oso zaila izaten da egoerari buelta ematea"**

**Ibai Zangitu** > Jarraitzailea

**"Esperientzia eza ordaindu dute; ea talde indartsua osatu eta berriz igotzen diren, urte gehiagotan mantentzeko"**

**Inaxio Garro** > Alkatea

**"Taldearen oinarria mantendu gura dugu, fitxaketaren bat egin eta talde ona osatu; eta ea gai garen berriz ere igotzeko"**

**Eduardo Altube** > Presidentea

**Iban Astola** > UDAko kapitaina

## "Denboraldiko azken txanpan ikusi dugun UDA izan da gaurkoa"

**J.B.** > ARETXABALETA

**Zapatuko partidua denboraldiko azken txanparen isla dela uste du Iban Astolak: nahi baina ezin. Iazko lan bikaina ezin borobildu izanaz penatuta dago taldeko kapitaina, maila mantentzeko helburua bete ez dutelako, hain zuzen. Datorren denboraldian ez da egongo.**



J.B.

**Ezin Salvatierra menderatu. Nola ikusi duzu partidua?**

Denboraldiko azken txanparen isla izan da: nahi, nahi, nahi baina ezin. Aukerak ez ditugu eta aurkariek arriskua sortzen dute gure atean. Aukerak sortu barik eta golik egin barik ezin dira partiduak aurrera atera.

**Presioa igarri duzue, agian?**

Bai. Azkarregi jokatu dugu, urduri, eta hala ez dago zer eginik. Saiatu gara lasaitzen baina ez dugu lortu. Denboraldiaren azken txanpan ikusi dugun UDA izan da gaurkoa.

**Denboraldia ondo hasi eta gaizki bukatu.**

Logikoena alderantziz izatea litzateke, baina ez dakit zer gertatu den. Ilusio handiz hasi ginen eta amaieran hondoratu egin gara.

**Zaletuendako adierazpenik bai?**

Ez dago hitzik. Taldea uneoro animatu dute; ikaragarria izan da.

**Datorren denboraldiari begira, zer?**

Ez dakit ba. Ni ez naiz egongo; baina ea talde polita egiten duten goiko postuetan ibiltzeko gai diren.

# du maila UDAk



freskoa emateko asmoz atera zuen Orueta baina ez zuen bere eguna izan. JOSETXO ARANTZABAL

go zela ekonomikoki zein kirol arloan". Datorren urtera begira, gaurtik aurrera lanean hasiko direla adierazi du Altubek: "Konfiantza eta esperantza dugu taldearen oinarria mantentzeko, eta fitxaketaren bat eginda talde ona osatzeko. Hori horrela, ea gai garen berriz ere Hirugarren Mailara igotzeko".

**Igor Arenaza** > UDAko kirol zuzendaria

## "Jaitsierak ez du esan nahi gure proiektua eten egin behar denik"

**J.B.** > ARETXABALETA

**UDAk partidu txarra egin zuela aitortu zuen Igor Arenazak lehiaren ostean. Esperantza bazuen euren lana bete ostean Lagun Onak-ek huts egiteko, baina azkenean, ez bata eta ez bestea. Hala ere, Hirugarren Mailan egon izanak klubari asko irakatsi diola uste du.**



J.B.

**Partidua irabaztea ezinbestekoa zen zuendako, baina ezin.**

Hala da. Buruarekin baino bihotzarekin jokatu dugu, eta une askotan urduriegi ibili gara. Azkarregi jokatu dugu eta emaitza justua izan dela esango nuke.

**Zaila zen baina esperantza ei da galtzen den azkena...**

Argi dago oso zaila zela, baina bagenuen esperantza gure lana bete eta Lagun Onak-ek huts egiteko. Azkenean, baina ezin izan dugu gure partidua irabazi.

**Zein balorazio egiten duzu aurtengo denboraldiaz?**

Lehen itzulian oso ondo ibili ginen; bigarren itzulian berriz justu samar aritu gara. Jaitsi egin gara, baina horrek ez du esan nahi gure proiektua eten egin behar denik. Aurten ikasitakoarekin berdin-berdin jarraitu behar dugu lanean.

**Proiektu horren parte izango zara datorren urtean?**

Hala izatea espero dut. Ez da urte erraza izan niretako baina aldi berean asko ikasi dut. Ilusio handia daukat jarrita proiektu honetan.

**OHOREZKO ERREGIONALA** > 31. JARDUNALDIA

# Mondra jaun eta jabe izan da Berio makal baten aurrean

MONDRA
**3-0**
BERIO



Muruamendiaraz, Berioko jokalari bat driblatzeko zorian. JOSETXO ARANTZABAL

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Nahi baino beranduago, baina Mondrak gainditu du maila mantentzea ziurtatzen duen 40 puntuen hesia. Azken hiru puntuak nahiko erraz lortu ditu, gainera. Izan ere, zapatuko aurkaria, Mikel Antia Realeko jokalari ohiak zuzentzen duen Berio, nahiko motel aritu zen eta Andoni Azkargortaren mutilek ondo irakurri zuten partidua. Erritmo eta intentsitate gutxiko lehia izan zen, eta jaun eta jabe izan zen Mondra.

**MONDRA, BALOIAREN JABE**

Kanpoko taldeak apenas sortu zuen arriskurik. Izan ere, Mondra baloia ahalik eta gehien izaten saiatu eta berea izan zen baloiaren jabetza. Gainera, partidua alde jarri zitzaion hasieratik, lehen zatiko 17. minutuan heldu zen-eta etxekoen lehenengo gola: ezker hegaletik ondo ateratako korner baten Iker Lopezek buruarekin jo ostean Jon Muruak sareetara bidali zuen baloia. Lehen zatia amaitu aurretik faltaz egindako gol ikusgarri bat baliogabetu zion epaileak Ander Bereziartuari, zuzenean ez zen falta bat zuzenean sartu zuelako.

**MONDRA, BALOIAREN JABE**

Bigarren zatian denak berdin jarraitu zuen: Beriok ezer gutxi eta Mondra baloiaren jabe. Hala, bigarren gola 60. minutuan heldu zen: Illart Etxebarriaren erdiraketa baliatu zuen Muruak eguneko bigarrena sartzeko. Partiduko azken gola Xabi Pavonek sartu zuen; atezainaren aurrean ederto loratu zuen baloia.

## Joxely taldea ligako txapeldun Oñatiko Herriko Futbol txapelketan

Zapatuan jokatu ziren Oñatiko Herriko Futbol txapelketako –beteranuen txapelketa– azken partiduak. Joxely da txapelduna, finalean Dooligans menperatu ostean (0-1). Hasi aurretik omenaldia egin zioten Juan Luis Arregiri. Hirugarren sailkatua Zorrobero izan zen eta Sasquatch taldeak amaitu du laugarren. Golegile onenaren saria Dooligans taldeko Joseba Albizuk jaso zuen, 16 golekin. Bestalde, Kopako irabazlea Gaur Bai izan zen Indar85 menderatu ostean.



TXOMIN MADINA

> OHOREZKO ERREGIONALA

### Aurrean ideiarik gabe ibili ostean, 3-0 galdu zuen Aloñak Irunen

Lehiako lehen minutuetan gola sartu zuen Real Unionek eta orduan Aloña baloiaren jabe egin zen. Baina Pablo Diezen mutilek ez zuten aurrealdean inongo arriskurik sortu. Hala, partiduko azken txanpan Irungo taldeak bi gol sartu zituen. Merezimendu osoz galdu zuten oñatiarrek, emaitzak islatzen duen aldea handiegia izan arren.

> OHOREZKO ERREGIONALA

### Pasajesek ordua eskatzen amaitu zuen Bergararen kontra (2-1)

Manu Diazen mutilak ondo aritu ziren zapatuan, bereziki bigarren zatian. Bigarren dagoen Pasajesi aurre egin zioten eta etxeko taldeak ordua eskatzen amaitu zuen. Oso itxura ona eman zuen Bergarak eta talde handien aurka ondo moldatzen dela berretsi zuen. Hala ere, ez zuten lan ona borobildu eta esku hutsik itzuli ziren.

> EMAKUMEZKOEN LIGA

### Mondra Allerruren gainetik pasa zen zapatuan: 9-1

Mondra oso erraz nagusitu ziren igoera faseko azken postuan dagoen Allerruren aurka. Oso goiz erabaki zuten partidua: 5. minuturako 2-0 zihoan etxeko taldea. Intentsitate gutxiko partidua izan zen. Taldeko liderra da Mondra baina datorren jardunaldian irabazi egin beharko du beste taldeko lehenaren aurkako finala ziurtatzeko.

**ESKUBALOIA** > EUSKADIKO TXAPELKETARA IGOERA FASEA

# Hautagaitza berretsi du Bergarak, liderrarekin

Erritmo bizian jokatuta, datorren denboraldian maila bat gorago egoteko urratsa egin dute, markagailuak dioena baino gehiago kostata


Kanpoko jaurtiketetan oinarritu zuen Bergarak bere jokoa partiduaren lehenengo minutuetan. JOSETXO ARANTZABAL

SORALUCE B.K.E.
**36-29**
EGIA

**JULEN IRIONDO** > BERGARA

Partidu garrantzitsua zen domekakoa Soraluce BKErentzat, Egia –igoera faseko liderra partidu denak irabazita– zetorren-eta Labegaraietara. Garrantzitsua, mailaz igotzeko bergararren aukerak neurtze aldera. Eta etxekoek erakutsi zuten, donostiarrekin batera, eurak izan daitezkeela Euskadiko Txapelketarako txartela lortu dezakeen beste taldea.

Partiduko lehenengo minutuetan defentsak nahikoa motel egon ziren, eta bi taldeek izan zituzten erraztasunak golak egiteko. Hasieran kanpokoek hartu zuten aurrea, eta poliki poliki joan ziren etxekoak markagailuan aldea jaten, atsedenaldira hiru goleko aldearekin irabazten joateraino, 17 eta 14.

Kanpokoek buruz-buruko barneraldiekin eta euskarriarekin jokatuta egiten zuten min, eta etxekoen jokoa gehiago zen kanpoko jaurtiketetan oinarritua. Hamaikanakoa izan zen azken berdinketa. Handik aurrera jokoa bizkortu egin zen, eta kontraerasoek eta bigarren jokaldiek pisua hartu. Dena den, jaurtiketetan huts dezente egin zituzten batzuek eta besteek.

**OREKA, AZKEN ZATIRA ARTE**

Bigarren zatian markagailuko aldeak ez zuen aldaketa askorik izan, azken 10 minutuetara arte. Etxekoak aurretik, baina alde erabakigarririk gabe. Minutu askotan buruz-buruko bi defentsa egin zituzten eurek, eta bergararrei kosta egin zitzaien jokatzea. Partiduaren azkenetan, baina, zenbait erasoaldi jarraian gol bihurtu zituzten, eta hor apurtu zen partidua. 36 eta 29 amaitu zen, zazpi goleko aldearekin –amaierakoa izan zen partidu osoko alde handiena–. Dena den, markagailu horrek pentsarazi dezakeena baino gehiago kosta zitzaion Bergarari puntuak etxean uztea.

Eta ezin aipatu gabe utzi hori lortzerako garaian etxekoen atezain Errastik izan zuen garrantzia. Sei metrotatik egindako jaurtiketa asko gelditu zituen bigarren zatian, bere taldekideek defentsan utzitako zuloak hain kaltegarri izan ez zitezen eginaz.

Bergarak irabazi eta Deustok galduta, mahoneroak bakarrik daude orain sailkapeneko bigarren lekuan, Egiarengandik bi puntura. Elgoibar da orain hirugarrena, Bergarak baino puntu bat gutxiagorekin.

Datozen bi partiduak erabakigarriak izango dira: mahoneroek kanpoan jokatuko dute –hurrengoa Trapagan–, eta hauetako emaitzek esango dute igotzea posible den edo ez.

**SASKIBALOIA** > MAILA AUTONOMIKOA

# Igoera bigarrenez ospatu eta titulua nahi dute orain gorriek

LIZUAN.COM
**63-72**
ALOÑA MENDI

**JULEN IRIONDO** > ARRASATE

Marka handia egin dute aurten Aloña Mendiren saskibaloi taldea nagusiko mutilek: Lehenengo Mailarako igoera lortu dute –bigarren igoera bi urtetan–; eta marka handia egin dutenez, behar den moduan ospatu dute, bi aldiz. Esan liteke aurreko astean etxean Balmasedari irabazita lortu zutela igoera; ze aste honetan Azpeitian 27 puntugatik ez galtzea nahikoa zuten igoera hori matematikek berretsi zezaten. Beraz, orduan ospatu zuten –denboraldiko etxeko azken partidua zelako gainera–, eta orain ere bai –San Migel txikiak zirelako gainera–.

Azpeitiarren kontrako partidua ez zen, dena dela, erraza izan. Igoera ez zen, noski, behin ere arriskuan egon, baina garaipena bai. Partiduko azken bi minutuetan baino ez ziren aurretik egon markagailuan oñatiarrak.

**HIRUKOAK, ERABAKIGARRI**

Lizuanekoek zonakako defentsa gogorra egin zuten, eta horrela lortu zuten Aloña Mendiko jokalariek garaieran zuten abantaila ezerezean uztea, Mallabiabarrena eta Iñigo Biain ondo lotuz. Erasoan ezin asmatu ibili ziren Xabier Igartuaren mutilak. Honez gain, kantxa osoan ere egin zuten presioa azpeitiarrek, eta hori dela-eta oñatiarrek baloi dezente galdu zituzten.

Baina Azpeitikoen errenta ez zen hamar puntuetatik haratago joan –alde horrekin hasi zen azken laurdena–. Eta alde hori, gaur egun, ez da gaindiezina Oñatikoendako.

Lizuan.comek derrigor zuen partidua irabazi beharra, eta presio hori igarri egin zuten jokalariek azken aldera. Aloña Mendik, berriz, erakutsi zuen ondo jokatu gabe ere badakiela minutu erabakigarrietan burua hotz edukitzen eta irtenbideak aurkitzen.

Aloñakoak ere zonakako defentsan jarri ziren, eta erasoan asmatu egin zuten hiruko marratik. Jaurtiketa batzuk sartu eta aurrea hartu zuten, berriro ez uzteko. Liga amaitzeko bi partidu falta dira –datorrena La Peñaren aurka– eta, igoera lortuta, txapeldun izatea da orain oñatiarren erronka.

> ESKUBALOIA

### Usurbilen aurka galdu arren, Arrateri irabaziz gero Kopako finala jokatuko du Ford Mugarrik

Ford Mugarrik 32 eta 36 galdu zuen zapatuan Usurbilen kontra. Bigarren taldeko jokalari askorekin ibili ziren etxekoak, eta ez zen partidu ona atera. Edu Orgazek hainbat proba egiteko aprobetxatu zuen partidua. Zapatuan galdu arren, asteburuan Eibarren irabaziz gero Kopako finala jokatuko dute Arrasatekoek.

> SASKIBALOIA

### MUren bigarren taldeak igoera lortu du, eta jaitsita dagoen talde nagusiak garaipena

MUren bigarren taldea Gipuzkoako 1. Mailara igo da. Ligako azken partiduan, arrasatearrek irabazi egin behar zioten Easo Zaharri igoera lortzeko, eta hala egin zuten: 60 eta 39. Dagoeneko maila galdu duen MUren lehenengo taldeak ere irabazi egin du, 86 eta 80, jaitsiera faseko bigarren postuan zegoen Easoren kontra.

> MENDI LASTERKETAK

### Iazko garaipena errepikatu du Zagok Anboton, eta Joseba Molinero oñatiarra hamalaugarren izan da

Didier Zagok irabazi du (39:28) aurten ere Anboto Kilometro Bertikala. 55 segundo eta minutu eta 53 atera zizkien, hurrenez hurren, Agusti Roci eta Raul Garciari –Europako txapeldunak biak–. Lehen debagoiendarra Joseba Molinero oñatiarra izan zen, hamalaugarren 6:32ra. Nesketan Nerea Amilibiak irabazi zuen.

**PILOTA** > ERREMONTEKO BERGARA HIRIA TXAPELKETA

# San Migel atzean nagusitu eta Matxinek tantoa ondo amaitu

ZEBERIO II - AGIRREZABALA
**30-40**
MATXIN III - SAN MIGEL

**JULEN IRIONDO** > BERGARA

Matxin III.ak eta San Migelek lortu dute erremonteko Bergara Hiria txapelketaren finalerdietarako lehenengo txartela. Zeberio II.aren eta Agirrezabalaren aurkako partidua aurreneko herenean baino ez zen orekatua izan. 12 eta 14kotik aurrera, urdinek ihes egin zuten markagailuan.

Pixkanaka San Migel nagusituz joan zen atzeko koadroetan. Dominatu egin zuen, Zeberiori pilota asko kentzea lortu zuen, eta Matxinek ondo aprobetxatu zuen hori aurrean tantoak amaitzeko. Jaialdiko beste norgehiagokan, Matxin IV.ak eta Urkok 35 eta 31 irabazi zieten Endika eta Aizpurua II.ari.

**PILOTARI ONENAK BERGARAN**

Zortzi bikotek hartuko dute parte erremonteko Bergara Hiria txapelketaren aurreneko edizio honetan; punta-puntako pilotariak dira, gainera, guztiak. Maiatzeko eta ekaineko sei zapatutan jokatuko da txapelketa.

Aste honetako aurreneko final-laurdenetako partiduaren ostean, maiatzaren 22an jokatuko dira hurrengo biak: Etxeberria IV.a eta Urrutia, Juaristi eta Etxeberria III.aren kontra, eta Urtasun eta Lizaso, Uterga eta Badiolaren aurka. Final-laurdenetako azken norgehiagoka, berriz, hilaren 29an jokatuko da: Ezkurra eta Baleztenak osatutako bikotea Urriza eta Ionen aurka arituko dira.



Lehenengo partiduko protagonistetako bi, Bergarako frontoian. JOSETXO ARANTZABAL

Kanporaketa hauetan irabazle ateratzen diren bikoteek ekainaren 5ean eta 12an jokatuko dituzte finalerdietako partiduak, eta txapelketa datorren hilaren 19an amaituko da, finalarekin. Jaialdietarako sarrerak 15 euro balioko du, finalekoak izan ezik. Finala ikusteko 20 euro ordaindu beharko dituzte zaleek.

ESKU PILOTA

## Profesionalen bi jaialdi izango dira jaietan

Bergarako jaietan ez da aurten ere esku pilota jaialdirik faltako. Udalak Aspe pilota enpresarekin adostu du profesional mailako bi jaialdi ekartzea herrira. Biek izango dute, gainera, interes berezia, arrazoi desberdinengatik. Maiatzaren 23an –domeka– buruz-buruko txapelketako neurketa izango da jaialdiko partidu nagusia: Xala eta Arretxe edo Patxi Ruiz eta Julen Retegi izango dira aurrez aurre. Hilaren 25ean –martitzena–, berriz, goi-mailako lau pilotari ibiliko dira lehian: Irujo eta Laskurain, Titin eta Pascualen aurka.


JOSETXO ARANTZABAL

## 115 lagun inguruk hartu dute parte Musakolako mendi bizikleta irteeran

Domekan egin zuten Arrasaten mendi bizikleta irteera. Musakolako San Isidro jaietako batzordeak antolatuta, 115 lagun inguru animatu ziren inguruko mendietatik prestatutako bi ibilbideetako –23 kilometrokoa motza eta 36koa luzea– bat egitera. Parte-hartzaileen artean antolatzaileek espero baino arrasatear gutxiago izan ziren, eta bailarako eta kanpoko jende dezente. Ibilbidean tarte tekniko bat bazen Aranguren baserritik gora, baina bestela zailtasunik ez zuen; tarte batzuetan lokatza bidean, baina apartekoko eragozpenik ez.

Goiena kluba
Abantailaz betetako kluba!
MAIATZEKO ZOZKETA
Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: *kluba@goiena.com*
Kuota: 45 euro

ARRIKRUTZERAKO BI SARRERA
Bidali KLUBA SARRERAK [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.
ARRIKRUTZ oñatiko obak


UMEENTZAKO LIBURUAK
Bidali KLUBA LIBURUAK [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.
Ikastolen Elkartea


ELHUYAR-EN PANPINA ETA JOKUA
Bidali KLUBA PANPINA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.
ELHUYAR fundazioa
elhuyar.org/zoozoroa


SKUNK-FUNKEKO KAMISETA
Bidali KLUBA KAMISETA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.
skunkfunk


SARI NAGUSIA
APIRILA-EKAINA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
GAU BAT TXOPEBENTA LANDETXEAN

• Tel. 94 625 49 23 / 629 45 50 79
• Basetxeta Auzoa. Gautegiz-Arteaga (Bizkaia)
• *www.nekatur.net/txopebenta*
• *www.toprural.com*
Maiatzean 20 urte beteko ditugu; Estatuko lehenengoak izan ginen.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *kluba@goiena.com*

**OÑATI**

# Baloia eskuartean zutela, pozik aritu ziren gure gaztetxoak

**BALOIA GOGOKO** Baloiarekin jokatuz gozatu egin zuten gaztetxoek eskubaloian eta saskibaloian

**SASKIBALOIA ETA ESKUBALOIA** Gaztetxo batzuk eskubaloian jokatzen aritu ziren, besteak saskibaloian

**GAZTETXO UGARI** Lehen Hezkuntzako hirugarren eta bosgarren mailetako ikasle ugari bildu ziren zapatuko saioan

NAROA ODRIOZOLA > OÑATI

Aurreko astean langilearen eguna zela-eta, gaztetxoek ez zuten izan Eskola Kirola saiorik. Horregatik, zapatuan gogoz eta pozik iritsi ziren gaztetxoak Zubikoara.

Kiroldegia bi kirolengatik zatitua egon zen. Batetik, kantxa urdinean eskubaloian jokatu zuten eta bestetik, kantxa berdean, saskibaloian aritu ziren.

Hainbat mailetako ikasleak elkartu ziren kantxetan. Besteak beste, Lehen Hezkuntzako hirugarren eta bosgarren mailako ikasleak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen mailako ikasleak elkartu ziren polikiroldegian.

Hirugarren mailako ikasleek eskubaloian jokatzen zuten bitartean, bosgarren mailakoak saskibaloian aritu ziren. Hauek lehenak izan ziren ohetik altxatzen. Izan ere, goizeko 09:15ean hasi zituzten partiduak. Ordu laurden beranduago, 09:30ean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen txanda izan zen.

Hasierako txanda horietan mutilek jokatu zuten eta 10:00etan nesken txanda iritsi zen.

**BALOIAREKIN, BETI POZIK**

Gaztetxoei berdin zaie eskuarekin edo hankarekin jotzea baloia, disfrutatu egiten duteeta. Horregatik, futbolaz gain, eskubaloia eta saskibaloia ere gogoko dituzte. Eskola Kirolaren asmoa kirola egiten ondo pasatzea da, eta hau ondo egiten dakite gure gaztetxoek.



N.O

**Soldaduak.** Zutik: Fabricio, Mikel, Josu, Manuel, Jon eta Xabi. Makurtuta: Jordi, Unai, Erik eta Jason.



N.O.

**Kukuak.** Ibon, Carlos, Iñigo, Ander eta Joseba.



N.O.

**Basurdeak.** Zutik: Beñat, Beñat, Jon eta Ander. Makurtuta: Xabier, Ander eta Aimar.



N.O.

**Errekalde.** Zutik: Urko, Imanol, Iker eta Ander. Makurtuta: Aimar, Unai, Aritz eta Aitor.

## ZEIN DA ZURE KIROLIK GUSTUKOENA?



**Iker eta Aritz**
Errekalde

Iker eta Aritz kantxa berdean zeuden zapatuan, saskibaloian jokatzeko prest. Azaldu zigutenez, Ikerrek gustuko du saskibaloia baina Aritzek ez asko. Hala ere, biek nahiago dute futbolean jokatu, saskibaloian baino.



**Joseba**
Kukuak

Hirugarren mailako ikaslea dugu Joseba. Gaztetxoarekin, eskubaloian jokatzen hasi aurretik egon ginen. Hau kantxa urdinean zegoen bere taldekideekin entrenatzen. Esan zigunez, gogoko du eskubaloia.



**Erik eta Manuel**
Soldaduak

Erik eta Manuel bosgarren mailako ikasleak dira. Eurak izan ziren lehenetarikoak kantxa urdinera heltzen. Saskibaloian jokatu behar zuten eta gustuko duten arren, futbola nahiago dutela esan ziguten biek.



**Ander, Aitor eta Iñaki**
Tigreak

Iritzi desberdinekoak dira Ander, Aitor eta Iñaki. Hirukote honek saskibaloian jokatu zuen zapatuan. Anderrek gustuko duela esan zigun. Aitorrek nahiago du futbola eta Iñakiri eskubaloia gehiago gustatzen zaio.



**Aimar, Urko eta Unai**
Errekalde

Saskibaloian jokatzen hasi aurretik izan ginen Aimarrekin, Urkorekin eta Unairekin. Hiru gaztetxoek bat egin zuten euren iritzia adierazterakoan: “Gustuko dugu saskibaloia. Hala ere, nahiago dugu futbolean jokatu”

**Iker Sanchez** > Lokatza Sumofic taldeko gazte mailako zuzendaria

# "Txirrindularitzako baloreek bizitzarako ere balio dute"

XABIER URTZELAI > BERGARA

**Iker Sanchez (Bergara, 1983) Lokatza-Sumofic taldeko gazte mailako zuzendaria da, eta bere agindupetara ditu zortzi txirrindulari. Amateur mailara salto egin eta lehenengo urtea egin ostean utzi zuen txirrindularitza, eta badira zortzi urte zuzendari lanetan dabilela, infantil mailan hasi eta gazte mailara arte. Sumoficekoek errepidean igaro dute negu gogorra, eta orain dabiltza emaitzak jasotzen. Sanchezek ez ditu bere ziklistak saltzeko.**

**Ze kategoriatan hasi zinen bizikletan ibiltzen?**

Ni kadete mailan hasi nintzen bizikletan, eta amateur mailako lehenengo urtea egin ostean uztea erabaki nuen. Penaz hartu nuen erabakia, baina ikasketak, lagunekin egoteko nahia... Kategoria horretan asko entrenatu behar da; pentsa, Contadorrekin, Luis Leon Sanchezekin, Irizarrekin, Amets Txurrukarekin... korritzen nuen, eta han ez zegoen bromarik. Poztu egiten naiz nirekin ibili ziren haiek noraino iritsi diren ikusita.

**Eta segidan zuzendari lanetan hasi zinen.**

Bai; txirrindularitzako *friki* bat naizela esango nuke, izugarri gustatzen zaidalako kirol hau. Infantil mailakoekin hasi nintzen eta orain gazte mailakoekin nabil, oso gustura.

**Zuzendari lanetan ibiltzeko ez da kategoria erraza. Askotan, gazteekin psikologo lanak ere egin beharko dituzu.**

Duda barik, baina oso gustura nabil daukadan taldearekin. Txirrindularitzaz dakidana irakasten ahalegintzen naiz, baina ez hori bakarrik. Kategoria hauetan gure lanak hortik harantzago joan behar du, bizikletarako balio duten baloreek bizitzarako ere balio dutelako.

Gazteek nik esandako zerbaiten aurrean protesta egiten badute, esaten diet etorkizunean lanean euren nagusiaren aurrean ezingo dutela horrela protestarik egin. Gogorra dela neguan entrenatzera irtetea, bai, baina baita goizeko seietan lanera joatea ere. Eta egin beharra dagoela.

**Gipuzkoako lasterketetan Sumoficeko mutilak aurrean dabiltza.**

Neguan lan handia egin dugulako, hor ez dago sekreturik. Abenduan, urtarrilean, elurra ari zela 120 kilometroko entrenamendu saioa egin behar genuela esaten nien, eta inork ez zuen protestarik egiten. Orain ari dira ikusten orduko lana badabilela fruituak ematen.




Iker Sanchez joan den astean taldeko autoetako baten ondoan; asteburuan mendiko kriteriumean izan dira. XABIER URTZELAI

**Guztien artean Mikel Aristi ari da nabarmentzen.**

Bai, baina gainontzekoak ere hor dabiltza, sailkapeneko aurrealdeko postuetan, eta sekulako tal-de-lana egiten. Baina bai, Aristik dohain oso onak ditu. Joan den astean Seguran lasterketa bikaina egin zuen, dena egin zuen ondo. Ihesaldia noiz jo erabaki, indarrak noiz gorde, distantzia mantentzen jakin, mendateak ondo igo eta ondo jaitsi, ihes eginda egon arren elikatzen joan... dena ondo.

ERREFERENTEAK

**"Poztu egiten naiz nirekin korritu zuten ziklistak noraino iritsi diren ikusita"**

HARROBIA

**"Gazteei txirrindularitzaz dakidana irakasten ahalegintzen naiz"**

LANERAKO GERTU

**"Neguan elurra ari zela 120 kilometroko saioa genuela esan, eta ez zegoen protestarik"**

**Lasterketa irabazita ere, baduzu lasterketa horren gaineko anekdotaren bat.**

[Barre] Lau txirrindulari ihes eginda zihoazen, Aristi tartean, eta euretako batek ez zuen lanik egin nahi. Beste hirurek sekulakoak esan zizkioten, eta Segurako kaleetan lasterketa ikusten ari zirenek ederrak entzun zituzten [Barre]. Normala ere bada, tropela atzean, pultsazioak topera... eta batek ez du lanik egin nahi. Baina hor ere errespetuz jokatu behar da eta gauzak beste modu baten esaten jakin. Horixe komentatzen ibili ginen.

**Zer-nolako gauzak dira zaleok ikusi ez, baina zuzendari batek bere ziklistei irakasten dizkienak?**

Gauza asko. Tropeletik autora ura hartzera zelan jaitsi, esaterako; beti aurrera begira, ez diezadatela ezertarako begiratu, ezin dutelako tropeleko erreferentzia galdu, eta beti pedalei eragiten. Edo haize-babesak (abanikoak) sortzen direnean zela jokatu behar duten; gezurra badirudi ere, profesional askok hanka-sartze ederrak egiten dituzte. Contadorrek iaz Paris-Nizan, esaterako.

Ihesean doazenak harrapatu nahi ditugunean erreleboak zelan eman, noiz jan... Esaterako, euria bada eta haizea badabil txubaskeroak eranzteko agindua dute; busti egingo dira eta hotz pasako dute, baina ez dute denborarik galduko.

**Horiek dira gainontzekook ikusten ez ditugun gauzak.**

Bai; tropel profesionalean badira aldapa gora oso trebeak diren ziklistak, baina beste gauza askotan hanka-motz geratzen direnak. Eta beste batzuk, aldiz, oso argiak dira, beti hor daudenak. Hori ez da kasualitatea.

**Ze iritzi duzu ibarreko ziklista profesionalen gainean?**

Iban Velasco izugarri ondo ibili da aurtengo orain arteko lasterketetan, dohain galantak dituela erakutsita. Ez da lasterketak irabazten ibiliko den ziklista bat, baina maila oso-oso oneko morroia da talderako.

Eta Markel Irizar asko gustatzen zait. Batzuek esango dute zelan iritsi den munduko talde mediatikoenera; nik ez daukat zalantzarik, eta seguruenik Armstrongek ere ez. Irizarrek oso ondo daki taldean zein den bere tokia, eta lan horiek ez dira telebistan ikusten, baina talde barruan asko estimatzen dira. Hark arazo gutxi sortuko ditu taldean. Eta iaz Giroan Koldori esprintak prestatzeko ardura zuenean, han ibili zen oilar guztiekin borrokan.

**GURASO MINTEGIA** > AITONA-AMONAK

# Aitona-amonak oso garrantzitsuak dira umeen heziketan

Egina dute guraso ibilbidea, pazientzia handiagokoak dira eta samurtasuna loratzen zaie, Rafael Cristobal doktorearen esanetan



Aitona, bilobarekin jolasean. GLOBETOPPERS

**LARRAITZ ZEBERIO** > ARRASATE

Sarri entzun ohi da aitona-amonek gaizki hezten dituztela bilobak. Hori esaten da, antza, dena egiten uzten dietelako eta dena ematen dietelako. Rafael Cristobal doktoreak uste du, ordea, aitona-amonen zeregina horixe dela.

**EMATEA ETA MIRESTEA**

Cristobalen ustez, emateak ez du zerikusirik amore ematearekin. "Gurasoak nekatuta iristen dira etxera, lanordu gogor eta zorrotz baten ostean. Umea haztea mendebaldean ez da batere lan erraza", dio. "Aitona-amonek horrelakoetan oso paper ona joka dezakete; gertatzen diren tentsioen koltxoi bihurtuz, haurra ulertuz eta konfiantza erakutsiz".

**EKINTZAK ELKARREKIN**

Aitona-amonek egina dute guraso ibilbidea. Pazientzia handikoak dira badakitelako ume okerrak ere bideratzen direla. Cristobalen esanetan, nagusiek umeak behar dituzte gizakia oso izaten amaitzeko, eta umeek nagusiak behar dituzte gizakiagoak izan daitezen. Askotan haurtzaroko momenturik goxoenak amona hari edo beste aitona hari lotuta daude; garrantzia handirik eman gabe egiten zutenari. Haurraren bizitza bete zuten ulermenez, zabaltasunez eta balioz.

**ELIKADURA** > FRUTAK

## 'etxegiroan.com', umeek, gazteek zein helduek ipuinak entzuteko webgune berria

Idazle ezagunen ipuin eta kontakizun ezagunenak entzuteko aukera eskaintzen du atari berriak




Umeendako, gazteendako zein helduendako ipuinak entzun daitezke. GOIENKARIA

**L.Z.** > ARRASATE

*Etxegiroan.com* du izena haurrendako zein helduendako ipuin sorta biltzen duen atari berriak. Bertan, Juan Kruz Igerabide, Antton Irusta, Mariasun Landa, Miren Agur Meabe eta Joseba Sarrionandia bezalako idazle ezagunek idatzitako ipuinak eta kontakizunak entzun daitezke.

**NARRAZIO LABURRAK**

Maria Uriartek jarri die ahotsa kontakizun guztiei, maitasun handiz jarri ere. Entzulearen gozamenerako gainera, ipuinak musikaz jantzi eta ipuinetan ageri diren hotsak nabarmendu dituzte.

Narrazio laburrak, poemak, liburuen pasarteak eta haurrendako ipuinak grabatu eta editatu dituzte musikarekin batera.



Alaitz Pagaldai ginekologo arrasatearra. GOIENKARIA

**Alaitz Pagaldai** > Ginekologoa

## "Amniocentesisa egin aurretik neurtzen dugu arrisku probabilitatea"

**L.Z.** > ARRASATE

**Osakidetzak screening hirukoitza izeneko proba ezarri du bere ospitale guztietan. Umekia anomaliaren batekin etortzeko dagoen arrisku probabilitatea ematen du proba berri horrek.**

**Nola egiten da screening hirukoitza?**

Haurdunaldiko 11.-12. astean emakumeek azterketa analitikoa egiten dute. Emaitza horiekin guregana etortzen dira 12. astean eta ekografia egiten diegu. Umekiaren garondoko plegua eta luzera neurtzen ditugu eta emakumearen historial medikuaren gaineko beste datuekin batera programa informatiko jakin batean sartzen ditugu datu horiek guztiak. Arrisku probabilitate bat ematen digu horrek. Altua bada, amniocentesisa egitea komeni izaten da, bestela ez.

**Amniocentesis kopurua jaisteko helburuarekin ipini da martxan sistema berria, ezta?**

Bai. Amniocentesisa egiteko umetokiko ura hartu behar da eta infekzio arriskua dago, baita zulatutako poltsa atzera ere ez ixtekoa ere. Umea galtzeko arriskua %0,5-1 artean dago.

**Ze fidagarritasun maila dauka screening hirukoitzak?**

Ez du diagnostiko bat egiten amniocentesisak moduan; arrisku probabilitatea ematen du eta bere fidagarritasun maila %90koa da.

**Eskualde ospitalean irailean hasi zineten lehen screening hirukoitzak egiten. Gutxitu da amniocentesis kopurua?**

Bai, gehienbat 35 urtetik gorako emakumeen artean. Askok amniocentesisa egiten zuten, baina zalantza handiekin. Orain, screening hirukoitzaren emaitzak eskuan lasaiago gelditzen dira eta amniocentesisa egitearen arriskua ez hartzea erabakitzen dute gehienek.

**"Ez du amniocentesisak moduan diagnostikoa ematen, arrisku probabilitatea baizik"**

**"Haurdunaldiko 12. astean egiten da eta bere fidagarritasun maila %90ekoa da"**

> OSASUNA

### Polenaren inguruko informazioa ematen duen zerbitzu berria eskaintzen du Euskalmetek

Polen maila zenbatekoa den jakitea eta, ondorioz, sintomak gutxitzeko neurriak hartzea posible da aurrerantzean. Osasun Publikoko laborategiek polen mailaren neurketak egiten dituzte egunero Bilboko, Donostiako eta Gasteizko estazio meteorologikoetan. Polen-mota ezberdinen garapena, eguneroko datuak eta hurrengo egunetarako espero denaren iragarpena ere kontsultatu daiteke Euskalmeten webgunean.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com



**> MAGIA MOSTRA**
Kartomagiak txundituta utzi zuen Espaloian batutako jendetza **> 30**



**> BERTSOLARITZA**
Aramaioarrak txapeldun, koadrila arteko txapelketan **> 30**



**> GOTZON OSINAGA**
Omenaldi jendetsu eta hunkigarria Oñatiko txistulari ezagunari **> 32**

**KRONIKA** > ALBERT PLA

# Bihurri, haluzinatu eta zintzo

**NON:** Arrasateko Amaia antzokian
**EGUNA:** Zapatua, maiatzak 8
**ZENBAT JENDE:** 200 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Ordu eta erdi.

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

Kleroari sua emateko deia egingo du Plak, hala egin zuen, zilegi zaio erabat, baina berak ere jainkotxo txikiaren legez jardun zuen Amaia antzokian, mundu berezkoan, hirutasun santua, aita ganberroa, seme bufoia eta izpiritu santu satiroa, Albert Pla bat eta bakarra. Sabadellkoaren kredoan guztiak du bere tokia: fusilamendu talde feministek, bihotzak ospa egin dien gizaki hustuek edo Estatu Batuak kiskaliko dituen zigarrokin piromanoak... Istorioek, surrealista izateagatik baina, ez zituzten bertara joandakoen barrenak astindu barik utzi.

### EZTIA ETA ODOLA

Plaren kolpeak zuzenak dira, aurpegira doaz, eztiak odol zaporea du eta ukabilkadaren osteko laztanak barruko zuloa oraindik eta ilunagoa egin dezake. Hori ere kanturako lehengaia du.

Amildegi horietan ibili zen Pla gitarrari atzaparka eginez batera eta bestera eta bai, barre egin zuten ikusleek, baina ez eragindako bertigoari lehenago aurre egin barik. *La Diferencia*, 2008an ateratako diskoan oinarritzen da ikuskizuna. Pertsona, pertsonaia, argiztapen soila eta gitarra zirikatzailea bakarrik eszena gainean.

Mundu hori sortu du Pla jainkotxoak eta ume bihurriaren ahots maltzur horrekin kontatzen ditu istorioak belarrira, aiztorik zorrotzenaren goxotasunez. Zer esanik ez: Antzokira gerturatuakoak pozik atera ziren, fede berria zabaltzeko irrikaz, apostolu leialen legera.

### AMILDEGIA ETA ILUNTASUNA

Soinu-mahaiaren tokitik, atzetik, gitarrarekin eta ermitau tankera ematen zion zaku-oihal bat soinean, jator eta adeitsu atera zen Pla agertokira, ikusleak agurtu eta ikuskizunari heltzeko prest. Azalpen, istorio, burutazio eta abestiekin monologo, antzerki eta kontzertuaren arteko nahasketa lausoa da Plak *La Diferencia*-n eskaintzen duena. Garairik *rumbero*enak aspaldi atzean utzita, kantaria baino kontaria da Pla, bertan zeuden zaleek ondo baino hobeto ezagutzen duten mundu bortitz, haluzinatu eta, bere modura, zintzoarekin. Ikuskizun klasearen muga bera bezain lauso geratu zitzaion agertokia ere. Hala, zalantzarik ez zuen egin askorentzat gaindiezina den barrera garden hori zeharkatu eta ikusleen artean abestu, hitz egin eta, zelan ez, hartu-emana izateko.

### ARRAIN ABISALA

Hain zuzen, argi guztiak itxungi eta fokutxo halogenoak zeuzkan kasko batek bakarrik argiztatuta ikusleei errepasoa egin zien, arrain abisalaren modura, iluntasunaren erdian bakarrik, ikusleak nahastuz eta baita ere dibertituz.

Izan ere, hain ur sakonetan murgilduta ere, Plak lelo bakarra du itxurazko noraeza surrealista horretan: barrea, adimenaren iratzargailu bezala ulertua. Ikusleak, bidaiak erdi mareatuta baina irribarrea ahoan atera ziren. Ume bihurriak amaitu du jokoa. Jainkotxoak bukatu du. Baina "Game over" da beti *La Diferencia* horretatik kanpoko errealitatean.



JOSETXO ARANTZABAL

**KRONIKA** > ELGETAKO MAGIA MOSTRA

# Untxia ez, ikusleen arreta da desagertu zena

**NON:** Elgetako Espaloia antzokian.
**EGUNA:** Zapatua, maiatzak 8.
**ZENBAT JENDE:** 300 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Bi ordu.

**JON BEREZIBAR** > ELGETA

Mago azeri horiek berriz ere sartu digute ziria eta oraingoan jendetzaren aurrean, kamerek grabatua eta, gainera, ikusle guztiak irribarrea aurpegian utzita . Trikimailua zein den ezin asmatzea baino amorru gehien ematen duena da gure arretarekin nahi dutena egiten dutela. Ziria sartu digute, ziri erraldoia, ageri-agerian eta umore handiz. Espaloia bete egin zen; jendeak gustuko du magia. Bete eta, gainera, jendeak goiz hartu zituen jesarlekuak, gertutik ikusi beharreko ikuskizuna izan zen-eta. Adin guztietako magia zaleak, aretoa betetzen. Baina inork lortu zuen ezer asmatzerik?

Gala gidatu, oholtzara igoarazitako ikusle-biktimak erdi lotsarazi eta bi ordu iraun zuen gala arintzeaz Jon Zabal mago aurkezlea arduratu zen. Pedro, Arrate, Mariaje, Mari Carmen, Mikel... horiek izan ziren taula gainera igo eta magoen adar jotze magikoak milimetro batera ikusteko aukera izan zuten "biktimak" baina haien asaldura imintzioek argi uzten zuten ez zegoela ezer igartzeko modurik, ez eta hari ikusezinik. Hain zuzen, ikusezinean oinarritzen den ikuskizuna da magia, kontraesana zentzurik hertsienean, nonbait azalpen fisiko eta ukigarria duten mirari txiki dibertigarriak.


Jon Zabala aurkezlea ikusleetako bi entretenitzen. JOSETXO ARANTZABAL


Camilo magoa botilatik ateratako kartarekin. JOSETXO ARANTZABAL

Woody Aragoen kartak nahierara *klona* zitzakeela frogatu zuen; Javi Santosek dado eta txanponei propietate fisiko bereziak eman zizkien, bizitza, kubileteak zeharkatzeko ahalmena eta kolorez aldatzea; Miguel Gomezek hegaz eta saltoka ipini zituen kartak; Rafael Benatar bolatxo eta borlekin etorri zen, desagertu, agertu eta ugaltzeko ahalmena zutenak eta amaitzeko, umore festa Camilo Vazquezekin, zeinak ikusle batek aukeratutako karta, ikuslea bera ondo mariatu eta gero, jakaren poltsikoan zeukan botila bete baten barrutik atera zuen. Zur eta lur. Aztorapen guztiaren aurrean, erremedio bakarrarekin utzi gintuzten ikusleak: algara.

**GERTU-GERTUTIK ERE EZIN**

Aurreko edizioetako ikusgarritasunik ez zuen izan galak. Bai ordea lilura, ikusleen hortzez beteriko ahoetan ezin hobeto islatzen zen txundidura hori bera. Kartomagia eta prestidigitazioa saioak izan ziren, magiaren bi kategoria, kirol olinpikoen zerrendara gehitu beharko lituzketenak gainera, begirik azkarrenak ere engainatzeko duten abiadura gizakiz gaindikoa kontuan hartuta. Berriz ere: zur eta lur.

Zapatu gaueko galaz gain, mostra asteburu osoan izan da Elgetan. Egubakoitzean umorezkoa saioa egin zuen Alberto de Figuereido portugaldarrak eta domekan magia kalera atera zuten Gasteizko ilusionismo elkartekoen esku abiletatik. Herritar batzuk ere ibili ziren atzo magia egiten.

**BERTSOLARITZA** > ARABAKO KOADRILA ARTEKO TXAPELKETA

# Aramaioarrak txapeldun Arabako, bertsoen festan


Manex Agirre, Andere Arriolabengoa, Iker Agirre eta Xabi Igoa. ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Gasteizen zapatuan jokatu zuten finala Gasteizko Kakiturri-Ehari taldearen aurka

**J. B.** > ARRASATE

Zapatuan jantzitako txapela Arabako kuadriletatik harro paseatzeko moduan daude aramaioarrak asteburukoaren ondoren. Txapelketa osoan oso ondo ibili eta gero, Gasteizko Landatxo pilotalekuan Kakiturri-Ehariko taldearen erakutsi zuten nagusitza Arabako bertsozaleen festa handian. Final polita izan zen zapatukoa

Aipatzekoa, baita ere, jaialdiak izandako giroa: ehunka lagunekin, animoak eman eta giroa ondo berotuz. Gainera, saioari ekin baino lehen, paraleloan jokatu duten bertso jarrien txapelketako finala ere egin zuten arabarrek. Aramaioko talde batek ere parte hartu arren, kasu honetan Gasteizko Martin Ttipia taldekoak atera dira garaile.

**ONDOEN, KARTZELAKOAN**

Bertso dotoreak bakarkakoan etorri ziren, taldeak bat-bateko lehen zatian makaltxo ibili eta gero. Manex Agirrek minbiziz hildako neskalagunari botatako bertsoak jaso zituen txalorik gehien, Arabako Bertsozale elkarteko Maiteder Sasietak aipatzen duenez. Kartzelako saioan aramaioarrek eginiko lana ere azpimarratu du Sasietak. Saio puntuagarriaren ostean, sari banaketan zaleen txalo eta oihuen artean jaso zituzten txapelak lau aramaioarrek.


Argazkia: Martin Diez Zuruzuza
ARRASATEKO BASERRIKO PRODUKTUEN AZOKA
09:00 -14:00
HILEKO 3. ZAPATUAN
maiatzak 15
ekainak 19
uztailak 17
irailak 18
urriak 16
azaroak 20
Antolatzailea:
Arrasateko Udala
Ayuntamiento de Mondragón
Enplegu eta Garapen Ekonomikoaren Saila
Laguntzailea:
ibai-arte
Arrasateko baserriek eta merkatariek konfiantza, hurbiltasuna eta kalitatea eskaintzen dizkizuete.

**OMENALDIA** > GOTZON OSINAGA

# Herriaren esker ona, txistuaren maisu handi bezain apalari

Herriko txistulari ezagunari zilarrezko domina eman zion zapatuan Euskal Herriko Txistularien Elkarteak



Gotzon Osinaga eta emaztea, lora sorta eskutan dutela, alkatearen, txistularien eta herritarren txaloak jasotzen. I BARANDIARAN

**IKER BARANDIARAN** > OÑATI

Zapatu arratsaldean Oñatiko Santa Ana aretoa goraino bete zen herritarrez, musikari txukunez eta emozioz; halakoa izan zen Gotzon Barandiaran txistulariari hainbat herritarrek egindako omenaldi-kontzertua. Izan ere, Euskal Herriko Txistularien Elkarteak zilarrezko domina eman zion ekitaldian bertan.

**KONTZERTU DOTOREA**

Omenaldi-ekitaldia 18:30ean hasi zen herriko plazan. Oñatiko eta beste herri batzuetako txistulariek lagunduta, Gotzon Osinagak, haren emazteak, udal ordezkariek eta hainbat herritarrek kalejira egin zuten Santa Ana antzokiraino. Ordurako, jende asko zegoen kontzertu-omenaldia noiz hasi eta eserlekua hartzeko zain; ikusmina zen nagusi zapatuan.

Eguna berezia zen eta kontzertua ere bai, jakina. Donostiako Txistulari taldeak izan zuen ohorea, Peter Ansorena gidari zutela. Osinaga adi-adi izan zuten lehenengo ilaran. Atal historikoari ekin zioten lehenengo, oso modu solemnean; horren ostean, Lesakako Urtzi Iraizozen hainbat pieza interpretatu zituzten, zortzikoak tarteko. Jose Maria Gonzalez Bastidaren pieza tradizionalek jarraitu zioten. Horren ostean, Osinagaren kantu kuttunak etorri ziren: *Hartzaren ehiza* ballet kutsukoa, *Donostiako hiru damatxo...*, *Ekin eta ekin* (azken hau ume koroaren laguntzarekin) eta Osinagak hainbestetan interpretatutako *Txikia*, hain zuzen ere.

Dagoeneko Osinaga hunkituta zegoen, baina Euskal Herriko Txistularien Elkarteko kideek zilarrezko domina jarri ziotenean eta herriko hainbat lagun eta ikasle izandakoek bere alde izan zituzten hitzak entzunda, zirrara hori zabaldu egin zen areto osoan barrena. Osinagak esker oneko hitzak izan zituen guztientzat eta jasotako maitasuna emaztearekin partekatu zuen.



Discipulos-eko Juan, tangan. J.A.

**MUSIKA** > ROCKA

## Punk-rock jai borobila

**I.B** > ARRASATE

Arrasateko gaztetxea hasi da berriro ere kontzertu entzutetsuak egiten eta egubakoitzekoa horietako bat izan zen. Arrasateko Interprete Desconocido punk-rock taldea izan zen agertokira igotzen lehena, eta gustura aritu zen.

Bigarrena Donostiako Discipulos de Dionisos talde ezaguna izan zen. Badakizue, punk-rock oso-oso azkarra eta pornoa... hitzetan eta baita ikuskizunean ere. Jendeak abestiak kantatu zituen. Orduko txantxa handia zen arren, jendeak ez zekien Madrilgo Los Chicos taldeak ekarriko zuena: soul, punk eta rock-and-roll eztanda!

**KIROLA** > 'POWER BALANCE'

# Eskumuturreko majikoa?

**OLATZ MANUEL**

*Power Balance* izeneko eskumuturrekoa izugarrizko arrakasta izaten ari da, ematen dituen ustezko onurak direla-eta. Besteak beste, oreka, erresistentzia, malgutasuna eta ongizate pertsonala hobetzen omen ditu.

Eskumuturrekoa kirolari iparamerikar batzuek sortu zuten orain dela bi urte inguru. Sortzaileen esanetan, eskumuturrekoaren ahalmena neopreno edo silikonazko tiraren erdian dagoen hologramari esker lortzen da. Diotenez, bertan biltzen diren frekuentziak gure gorputzarentzat onuragarriak diren material naturalez osatuta daude. Eskumuturrekoa jartzea nahikoa omen da gorputzeko oreka elektromagnetikoa lortzeko. Gainera, gorputzeko zelulak, inguruan dauden gai kimiko kutsakorretatik eta estresetik isolatzen omen ditu.

Asko dira pentsatzen dutenak eskumuturrekoak onurak ekartzen dituela. Etekinak ikusi dituztenek adierazten dute proba bat egitea nahikoa dela bere onurak baieztatzeko.

Hainbat proba daude, baina agian ezagunena ondorengoa da: eskumuturrekorik gabe hanka bakarraren gainean jartzea, besoak zabalik.

Horrela egonik, beste batek beso batetik beheranzko indarra egin beharko du, desorekatzeko asmoz. Jarraian, eskumuturrekoa jarrita proba bera egiten da. Askok diote bigarren aldian ia ez dela orekarik galtzen, ezberdintasuna nabarmena izanik.

**Eskumuturrekoari mirarizko ezaugarriak eransteagatik salaketa jaso dute fabrikatzaileek**

**ZALANTZA UGARI**

Beste askok, aldiz, kontrako iritziak dituzte eta zalantza ugari eskumuturrekoaren inguruan. Ba al du oinarri zientifikorik? Proba alderantziz burutuko bagenu, hau da, lehenengo eskumuturra jarrita eta gero barik, emaitza berbera izango genuke? Ez al da efektu plazeboa baino izango? Galdera ugari zintzilik.

Azkenaldi honetan, eskumuturrekoaren auzia notizia izan da, *Power Balance* fabrikatzen duten enpresek kontsumitzaileen elkartearen (FACUA) aldetik izan duten salaketa dela-eta; eskumuturrekoari mirarizko ezaugarriak eransteagatik jaso dute salaketa hori.

*Power Balance*-ko fabrikatzaileek ere neurriak hartuko dituzte salaketa horren aurrean eta ahaleginduko dira euren produktua defendatzen eta orain arteko ospearekin jarraitzen.

Azken finean, sinismen kontua ere bada: eskumuturra, majikoa izango ei da benetan?



*Power Balance* eskumuturra. ARIZMENDI

**BITXIKERIA BATZUK:**

- 300.000 eskumuturreko baino gehiago saldu dira dagoeneko.
- Eskumuturrekoaren balioa 35 euro inguruan dago; baina marka imitatzaileak ere atera dira eta horiek merkeago edo garestiago saltzen dira.
- Publizitatean ospe handiko pertsonak erabili dituzte, besteak beste, Manolo Santana tenislariak, Guti Real Madrileko futbol jokalariak, Eva Castro korrikalariak eta Shaquille O´Neal saskibaloi jokalariak.
- Eskumuturrekoak ez ezik, beste hainbat produktu ere saltzen dira merkatuan, holograma berbera daukatenak, hala nola: zintzilikariak, plastikozko txartelak, pegatinak...
- Surf eta golf bezalako kiroletan eskumuturrekoa erabiltzea debekatu dutela zabaldu bada ere, bi kiroletako federakuntzek jakinarazi dute, momentuz, araudian ez dela moldaketarik eman eta, beraz, hori gezurra dela, erabil daitekeela, alegia.

**Atal honetan...**

Astero-astero, Arizmendiren eskutik, intereseko gaiei buruzko aholkuak.

Arizmendi ikastola PRO 2.0 PROFESIONALAK
ARIZMENDI IKASTOLAREN LANBIDE HEZIKETA

GURE TALDEAK

## Show Business



Ezkerretik eskuinera, Xabier Lete, Mikel Fernandez, Igor Agirre, Julen Aginagalde eta Dani Maestro. SHOW BUSINESS

# "Hard rock kutsuari eutsiz, kantu landuagoak egin ditugu"

Show Business oñatiarrek 'Pozoindutako hitzak' diskoa kaleratu berri dute; 12 kantu eta bideoklip bat grabatu dituzte Iñaki Cerqueirarekin

Grabazioa hasi aurretik Mikel Fernandez sartu zen taldean, "freskotasun eta indar puntu" bat emateko asmoz; boskote dira orain

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

**Hiru hilabeteko grabazioaren ostean, 12 kantu eta bideoklip batez osatutako lanarekin datoz Show Business oñatiarrak. Igor Agirrek, Mikel Fernandezek, Julen Aginagaldek, Dani Maestrok eta Xabier Letek osatzen dute taldea.**

**Bigarren diskoa kaleratu duzue: *Pozoindutako hitzak*. Gustura zaudete?**

Bai, oso gustura gelditu gara azken lanarekin. Guretzat, seme bat izatea bezala izan da, eta horrela zainduko dugu.

**Aurkezpen kontzertua egin zenuten apirilaren 17an. Nolako harrera izan zenuten?**

Kontzertua arrakastatsua izan zela uste dugu; izan ere, Sharon Stonerren laguntzarekin aretoa bete genuen. 170 lagun inguru egon ziren.

**Zer entzungo du diskoa erosten duenak?**

Batez ere, rock aukera zabala. Kantu landuagoak dira guztiak, erritmo aldetik batzuk besteak baino pisutsuagoak. Dena den, taldearen hard rock kutsuari eutsi egin diogu.

**Lehen diskoan euskaraz eta gaztelaniaz abesten zenuten. Orain? Izenburua, behintzat, euskaraz jarri diozue.**

Hasieran, ez genekien zein hizkuntzatan abestu, eta euskaraz eta gaztelaniaz grabatu genuen. Dena den, bigarren diskorako garbi genuen kantuak euskaraz egin gura genituela, kantuen bidez transmititu gura genuena askoz errazago egiten dugulako euskaraz.

**Non grabatu duzue diskoa?**

Diskoa Oñatiko Musika Eskolan grabatu genuen 2009ko abendua eta 2010eko urtarrila bitartean gure teknikari, manager eta lagun Iñaki Cerqueirarekin. Ahotsak, nahasketak eta masterizazioa Iñakik berak egin zituen Willboard Records estudioan.

Grabazio prozesua bi fasetan banatu genuen; izan ere, diskoaren zati instrumentala grabatzeko egun jakin batzuk genituen. Ahotsen grabazioa eta bestelako nahasketak lasaitasun handiagoarekin egin genituen.

**Bi urte pasa dira *Eter del demonio* kaleratu zenutenetik. Taldeak eboluziorik izan du?**

Bai. Bai zuzenekoetan eta baita estudioko lanetan ere, taldearen eboluzioa nabarmena izan da. Bi diskoak entzuten dituenak garbi ikusiko du bilakaera.

Bestalde, taldeari freskotasun eta indar puntu bat emateko, boskote gara orain. Denborarekin taldeari falta zitzaion bultzada dela ikusi dugu.




### Hard-rocka eta erritmo intentsoagoak

Show Business oñatiarrak aurrerapauso nabarmena egin du disko honekin. Dagoeneko Potemkinek badauka bidelaguna hard-rockean.

Gainera, Show Businessekoek Eskandinabiako high-energytik haratago egin dute lan honetan; eta zenbait kasutan Araotzeko desertuko ispiritua batu dute kantuotan, baita erritmo pausatu baina intentsoak ere. Badirudi Monster Magneteko Dave Wyndorf gertu dabilela! Melodiak eta gitarrak ere dexente landu dituzte lan honetan, ondo neurtuta.

Iker Barandiaran.

**Ze berdintasun daude bi diskoen artean?**

Gure ustez, bi diskoen arteko berdintasun nagusia kantuek esentzia, oinarri bera dutela da. Hala ere, bigarren diskoko kantuek askotariko estiloak ukitzen dituzte eta horrek, azken finean, diskoa aberasten duela pentsatzen dugu.

**Zeintzuk dira zuen talde erreferenteak?**

Besteak beste, The Hellacopters, Gluecifer, Monster Magnet, Turbonegro, Electric Eel Shock, Hermano, Queens of the Stone Age, Black Sabath eta MC5.

**Non eros daiteke diskoa?**

Oñatiko Ona eta Pako tabernetan eros daiteke, eta laster Debagoieneko beste hainbat lekutan jarriko dugu. Gainera, Oihuka diskoetxearekin zabalduko dugu Euskal Herri osora.

**Nolakoak zarete zuzenekoetan?**

Ondo prestatuko ordubete pasako ikuskizuna egiten dugu. Gure azken diskoko kantu batek esaten duen moduan: *Oholtza gainean ikusten bagaituzu, izerditan arnasestuka izango da*.

# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Bi gelako pisu eraberritua salgai Antzuolan. Igogailua, berogailua, teilatu, fatxada eta portal berritua. Prezioa: 185.000 euro. 645-00 89 97 edo 645-70 80 26.

**Antzuola.** Etxebizitza salgai erdialdean. Eguzkitsua. 2004ko uztailean eraikia. Bi logela, egongela, komun bat eta sukaldea jantzita. Balkoia. Garajea aukeran. Galdetu Loreagatik. 659-66 02 55

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Zerkaosteta kalean. Hirulogela, bi komun, sala, sukaldea eta ganbararekin. Berritua eta igogailuarekin. 943-79 34 54

**Bergara.** Bidekurutzeta kalean etxebizitza salgai. Sukaldea, egongela, bi logela, bainugela eta trastelekua. Guztiz berritua. Aukera ona. 171.000 euro. 618-44 38 44

**Berriz.** Berrizen pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, ganbara handia eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Guztiz berriztua eta egoera ezin hobean. 647-77 73 92

**Elgeta.** Duplex txukuna eta guztiz jantzia. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea eta egongela handia, beheko suarekin. Aukera ona. Prezio negoziagarria. Etxea ikusi nahi baduzu deitu. 685-75 18 91

**Elorrio.** Elorrion pisu bat saldu edo errentan ematen da; 3 logela, jangela, sukaldea bi bainugela eta ganbara. Altzariz jantzita, bizitzen sartzeko dena prest. 657-70 03 21 edo 94-658 32 05

**Etxarri-Aranatz.** 90 metro karratuko bigarren eskuko pisua Etxarri Aranazko erdigunean, baina zonalde lasaian. 1. esk. Erabat jantzita. 3 argi, aluminioko leiho bikoitzak, beheko sua, berokuntza eletrikoa (gaueko tarifa). Eskailera gastuak 30 euro urtean. 3 logela, sukaldea, egongela-jangela, komuna, despentsa eta 20 metro karratuko trastelekua etxabean. Prezioa adosteko. 636-15 85 35 (Bitori)

**Gasteiz.** Gorbeia kalean etxebizitza salgai.Guztiz berriztua. Bi logela, egongela handia, sukaldea (erabat hornitua), komuna, trasteroa. Kalefazio zentrala. Bi terraza 25 metro koadrokoak. Garajea aukeran. 246.000 euro. 615-70 86 04.

**Grañon (Errioxa).** Santo Domingo de la Calzadondoan dagon Grañon herrian pisuak salgai, eraberritzen ari gara. Lehenengo pisua garajearekin salgai, bigarren pisua txokoarekin eta hirugarren pisua ganbararekin, igogailua dauka eta pisu bakoitzak 3 logela, komuna, sukalde jangela eta balkoitxo bat ditu. Herrian era guztietako zerbitzuak daude, baita udarako igerilekuak ere. 120.000 euro. 605-77 07 86

**Ibarra.** Etxebizitza ederra salgai Ibarran: 3 gela, sala oso handia terrazarekin, bi komun (bat gela nagusiaren barruan), sukaldea eta despentsa aparte eta beste bi balkoi. Igogailuarekin. Garaje itxia eta handia etxearen azpian prezioaren barruan. 635-72 66 46

**Lana.** Etxeak ditu: 3 logela, egongela (beheko sua du), sukaldea (sutegi ekonomikoa berria), komuna, ganbara eta ukuiluak. Teilatua oso ongi dago. Baratzeak 150 m ditu eta era ekologikoan landu da. Inguruak mendi etanaturazaleentzat ezin aproposagoak. Gasteiztik 45 minutura eta Lizarratik oso gertu. Egokia asteburu eta oporraldietarako. Ikustea merezi du. 699-24 86 99.

**Luz Saint Sauver.** (Frantziako Pirinioetan) etxebizitza salgai. Duplexa. Jantzia. 670 49 84 28

**Luz Saint Sauveur (Frantzia).** Luz Saint Sauveur Luz-etik 500 metrora, 58 metro koadroko duplexa salgai. 2 logela, komuna, sukaldea, antena parabolikoa. Dena oso egoera onean eta jantzita. 635-74 62 26

**Oñati.** 67 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Bi logela, komuna, jangela-egongela, eta sukalde guztiz hornitua. 264.000 euro. 35 metro koadroko garaje eta trastelekua, aukerakoak. 66.000 euro. 659-72 06 64

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**

**www.goiena.net-en**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**

- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.
- LOKALA SALDU/ALOKATU.
- GARAJEA SALDU/ALOKATU.
- MOTORRA SALDU/ALOKATU.

GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 20 € (BEZ BARNE).

**PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)**

MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 21 € (+BEZ).

GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 28 € (+BEZ).

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Oñati.** San Anton kalean estreinatzeko etxebizitza salgai. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. Egoera onean eta jantzita. Trastelekua eta patio ere baditu. 240.000 €. 665-71 77 96.

**Oñatiko** Enpresa Zientzien kanpus berritik hurbil. Estreinateko. Azken solairuan, ikuspegidun pisu tasatu berri oso eguzkitsua: 90 metro koadro gehi 20 metro koadroko garajea. Diseinu onekoa. Igogailuarekin. 224.216 euro (BEZ gabe). 943 78 27 07

**Orio.** Donostiatik 10 minutura A-8ko irteera berritik. Etxe ederra eta goxoa: 99 metro karratu; sarrera, 2 logela bikoitza eta 32 m2ko saloia, dena haritzezko tarima zabalarekin, sukalde handia, bainugela, terrazatxoa eta trasteroa etxean bertan (ikus planoa). Azkeneko solairuan dago eta ganbara handia ere badu (25 m2koa) hurrengo pisuan. 330.000 €. *www.etxegoxoa.com*. 639-20 27 64.

**Tolosa.** Tolosako AldeZaharrean atiko argitsua. 50 m2. Egoera onean. Prezioa 153.260 € (25.500.000 pta). Interesatuek deitu 943-43 00 20 zenbakira. Zuzeneko salmenta.

**Tolosa.** (Voith-Gorostidi)Eraikuntza berriko etxebizitza salgai (75m2).Promotorearen bidez zuzeneko salmenta. Sukalde eta 2 komun ekipatuak, egongela handia eta 2 logela. Argitsua. Komuna izan ezik, beste guztia kanpora begira. 2 terraza eder eta baitatrasteroa ere. Premiazko salmenta. 658-72 92 88

**Valentzia (Valentzia).** Etxebizitza salgai hiri erdigunetik 4 kilometrora (Port Saplaya). 75 metro koadro. Sarrera, jangela-egongela, bi logela, bi komun, terraza, igogailua eta komunitateko igerilekua. Hondartzatik 200 metrora. 200.000 euro. 635-75 09 47 edo 676-51 80 58

### 102. EROSI

**Arrasate.** Egurrezko egitura eta gutxienez 3 logela dituen etxea erosi nahi dugu. Asier. 610 67 12 22.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** 40 metro koadroko apartamentu berria erdigunean. Guztiz jantzita eta kapritxosoa. Aukera bikaina bikote edo pertsona bakarrarentzat. 943-85 06 23

**Arrasate.** Apartamentu berria errentan ematen da. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943 77 03 25

**Benicarló (Castelló).** Etxebizitza ematen da errentan hondartzako lehen ilaran. 8 pertsonendako lekua. Hornitua eta erosoa. 620 41 97 53 edo 964 46 50 05

**Bergara.** Apartamentua ematen da errentan erdigunean. Igogailu eta 75 metro koadroko terrazarekin. 616-87 29 65

**Berriz.** Pisua alokagai Berrizen. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela handia, igogailua eta balkoia. Oso eguzkitsua. Telefonoa:663-39 75 88 (gauez deitu, mesedez).

**Conil (Cadiz).** Conilen apartamentua alokatzen da garajea eta igerilekua dauka. 653-73 34 57

**Donostia.** Alde Zaharrean, Abuztuaren 31 kalean, 2010-2011 ikasturterako etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Iaz berriztua. 619-41 97 10

**Iruñea.** Datorren kurtsorako 3 logelako pisua alokatzen da Iruñean, Unibertsitatetik 5 minutura. 679-07 36 02 edo 948-56 44 82.

**Luz Saint Sauver.** (Frantziako Pirinioetan), etxebizitza ematen da errentan udako garaian. 670 49 84 28

**Muxika.** Muxikan pisua alokairuan. 3 logela, sukaldea eta egongela(70 metro koadro inguru). Guztiz berritua eta bizitzen sartzeko moduan. 600 euro. 687-99 52 93 edo 615-76 76 73.

**Oñati.** Etxebizitza ematen da errentan Lope Agirre kalean. Lau logela, bi bainugela, egongela eta sukaldea. Altzariz hornitua. 659-64 39 63

**Oropesa (Castellon).** Apartamendua alokatzen da Oropesan kokaleku aparta: hondartzatik eta Balneariotik gertu. Bi logela, bi bainugela, sukaldea, balkoia, eta egongela. Garaje eta igerilekuarekin.Telefonoa: 619 18 77 99

**Otxandio.** Otxandion etxe bat alokagai daukat, herriaren erdigunean kokatua. Berria da eta prezio onean esakintzen dut. Deitu 945- 45 00 69 telefono zenbakira

**Torrevieja (Alicante).** Bungalowa errentan ematen da Torreviejan. Hiru logela, egongela, sukaldea, solarium. Urbanizazio pribatua berde gune eta igerileluekin. Telefonoa: 615-77 96 22 (Itxaso)

### 104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Txikia eta erdigunean.943-79 60 89

**Arrasate.** Apartamendu edo etxebizitza txikia hartuko nuke errentan. 696-18 56 61

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 609-38 86 47

**Bergara.** Etxebizitzaerrentan hartuko nuke Bergaran. 699-09 46 26

**Eskoriatza.** HUHEZIko hiru neska datorren ikasturterako etxebizitza bila ari gara. Deitu 635 20 25 76 telefonora.

**Oiartzun.** Alokatzeko baserri baten bila gabiltza Oarsoaldean. Baratzea lantzeko asmoz eta aukeran, oilotegi bat antolatzeko asmoarekin. *irekiateak@hotmail.com*

**Oñati.** Etxebizitza hartuko nuke errentan, igogailuarekin. 617-80 26 20

**Zaldibar.** Bikote gazte bat alokatzeko pisu bila Zaldibarren. 605-72 34 30

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela bat ematen da errentan unibertsitatetik gertu. 655 71 77 85 edo 943 79 56 64.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitatetik gertu. 663 72 37 44.

**Arrasate.** Logela hartuko nuke errentan, prezio onean. Miguel. 943 79 74 13.

**Bergara.** Etxea osatzeko pertsona bat behar da San Antonion. Terraza handia eta berogailua. 646 32 94 38.

**Bergara.** Gela baten bila nabil, errentan hartzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 699 66 33 63.

**Bergara.** Laguna behar dut etxea osatzeko. Deitu 639 94 48 65 telefonora.

**Bergara.** Neska gaztea lagun bila etxebizitza edo gela osatzeko. 671 71 90 03.

**Bergarako** bi gazte etxebizitza osatzeko pertsona baten bila dabiltza. Etxea hiru logelakoa da eta erdialdean dago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 610 31 02 61.

**Logelak, Erasmus ikasleendako.** Irailaren hasieratik Gabonak arte Mondragon Unibertsitatean ikasten egongo diren atzerriko ikasleentzako logelak behar dira. Deitu 656 77 66 32 telefonora.

### 106. BESTELAKOAK

**Lursail ez eraikigarria** erosiko nuke ortua eta zuhaitzak jartzeko Arrasaten, Aretxabaletan edo Eskoriatzan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 686 75 87 72.

**Trukea.** Exeterren (Ingalaterrako kostaldea) dagoen etxea eskaintzen dugu trukean Gipuzkoako kostaldean dagoen beste baten truke. Abuztuaren 9tik 26ra bitartean. Informazio gehiago: *terrasti@gmail.com* edo. 637 52 89 83.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALGAI

Beasain. Beasainen Martina Maiz kalean garaje itxia salgai, 25 m2 gutxi gora behera. Auto automatikoarekin.48.000 euro. Deitu 659-07 73 21 edo 605-77 07 86 telefono zenbakietara.

**Bermeo.** Garajea salgai Kafe Antzokipean. Oinezkoaen sarreratik oso gertu eta maniobra egiteko ezinobea. Prezio paregabean. 18.900 euro. Deitu 655-70 80 12 telefono zenbakira.

**Durango.** Garaje itxia salgai, 15 metro karratukoa. Telefonoa: 618-89 65 91

**Durango.** Durangon garaje plaza bat salgai, Jesuiten parkinean. Deitu 661-12 62 81 telefono zenbakira

**Zumarraga.** 2 plaza eta sarrera automatikoa dituen garajea salgai. Egoera onean dago. Zumarragako Urdaneta kalean kokatzen da. Prezio onean. 679-23 88 67.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Garaje itxia hartuko nuke errentan Arrasate pasealekuan edo San Andresen. 652 77 13 77

**Oñati.** Garaje itxia behar dut Kale Zaharrean edo aldameneko kaleren batean. 647 24 40 54

## 3/ LOKALAK

### 301. SALGAI

**Irura.** Lokala Iruran, Laskibar bailaran, N-1 ondoan. 118 m2 eta 78.000 euro. Interesatuek deitu 645-72 19 47 telefonora.

**Lasarte-Oria.** Lasartenlokala salgai, 48 m2, Green plazan, sarrera kanpotik du eta aukera dauka etxebizitza bezela jartzeko legedi barruan, aire egokitua dauka eta komuna, komertzio bezela ere aukera honak eskaintzen ditu. 110.000 euro. Interesa izanez gero deitu 605-77 07 86 telefonora.

### 303. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Lokala ematen da errentan San Andres auzoan. Musika taldeek entseatzeko aproposa. 639 15 37 32.

**Bilbo.** Bulego bi, 30 eta 40 m2, alokatzen ditut Bilbon. 639-66 36 89 edo *miarregui@euskalnet.net*

**ARRASATE**

**Taberna errentan ematen da erdialdean.**

**665 70 88 30**

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

Arrasate. Esperientziadun emakume euskalduna behar da umea goizez zaintzeko. Arratsaldeko 8etatik aurrera deitu. 688 64 39 81

**Txistularia** behar da ekainean ospatuko den ezkontza baterako, Debagoienean. 650 23 34 98

### 402. ESKAERAK

Aretxabaleta. Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Mari. 943-53 33 92

**Arrasate.** Bertako neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat. 618-00 08 28

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu orduka lan egiteko: nagusi edo umeak zaindu, plantxa eta abar. 699-54 17 27

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusi edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetan jarduteko. 659-37 41 95

**Arrasate.** Emakumea, 51 urtekoa, gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. 943-79 60 89

**Arrasate.** Esperientziadun emakume euskalduna behar da umea goizez zaintzeko. 20:00etatik aurrera deitu. 688-64 39 81

**Arrasate.** Bertako neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat. 618-00 08 28

**Arrasate.** Emakumea gertu sukaldean lagundu, plantxa edo garbiketak egiteko, orduka. 647-16 40 49

**Arrasate.** Zerbitzari edo garbiketa lanak egingo nituzke. 619-78 63 41

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Ozaeta 105 m². Berritua.
- Bidekurutzeta. 85 m². Berritua.
- Artekale 60 m². Berritua. 153.258 €.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- Osintxu. 70 m². Igogailuarekin. 153.258 €.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Lorentxoko 73 m². Eraikitzeko.
- Masterreka 92 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Osintxu 64 m². Berritua. 114.192 €.
- Bidekurutzeta 65 m². Berritua. Igogailuarekin.
- Simon Arrieta 70 m². Prezio ona.
- Zabalotegi 54 m². 154.761 €.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m². Berritua.
- Zubiaurre 52 m². Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- **AUKERA.** Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua. **PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m². 168.283 €.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Aranerreka, 80 m², oso ondo.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 m², berria, garajea eta trastelekua.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,99 m² + ganbara, berritzeko.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Artekale, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m².
- San Antonio, 65 m², eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m², eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.
- Basarte. 69 m². Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m². Apartamentua. Oso ondo.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarerreka, 58 m², aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria.

**Arrasate.** Gizona gertu garbiketak egin, nagusiak zaindu edo sukalde laguntzaile lanetarako. 634-84 41 94

**Arrasate.** 20 urteko mutila gertu eraikuntzan, garbiketan edo zerbitzari lanetan aritzeko. 619-78 63 41

**Azpeitia.** 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientziaduena bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. 606-42 64 14

**Azpeitia.** Azpeitian haurrak zaintzeko emakume euskaldun bat behar da, goizetan eta hiru hilabeterako. 677-98 30 12

**Bergara.** Garbiketarako eta pertsona edadetuen zaintza lanetarako gertu egongo nintzateke. Orduka egingo nuke, eta etxe barruan lan egiteko ez dut arazorik. 686-76 22 96

**Bergara.** Emakumea pertsonak zaindu edo garbitasun lanak egiteko gertu. Geriatria eta elikagaien manipulazioan tituluduna. 650-62 12 94

**Bergara.** Nagusiak zaindu edo garbitasun lanak egiteko gertu goizez eta gauez. 609-23 39 52

**Bergara.** Neska eskaintzen da zaintza lanetarako, orduka lan egiteko. Esperientziaduna. Iris. 677-73 79 59

**Bergara.** Emakume bat gertu dago zaintza lanak egiteko, kanpoan eta orduka. 697-27 25 20

**Bergara.** Paperak dituen emakumea pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 606-64 16 09

**Debagoiena.** Ostalaritzan esperientzia duen neska gertu sukaldari lanak egiteko. 648-75 07 97

**Debagoiena.** Sei urteko esperientzia dut nagusiak zaintzen eta etxean lo egiten edo egunean zehar lan egingo nuke. Bestelako lanetarako ere gertu nengoke. 638-89 98 60

**Debagoiena.** Debagoieneko esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzeko. 637-18 07 23

**Debagoiena.** Umeak arratsaldez zaintzeko prest nago. Esperientzia handiko neska. Bergara edo Arrasaten. 650-23 34 98

**Debagoiena.** Erizain laguntzailea gertu umeak eta nagusiak zaintzeko. 658-03 07 24

**Debagoiena.** Emakume gazteak nagusiak edo haurrak zainduko lituzke. 606-72 28 76

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak eta haurrak zaintzeko. 649-71 95 21

**Debagoiena.** Neska euskalduna, arduratsua eta esperientziaduna, haurrak zaintzeko prest. Arratsaldetan, 13:00etatik aurrera libre nago. Interesa baduzue deitu zenbaki hauetara: 618-09 47 87 edo 943-78 15 10

**Debagoiena.** Bertako esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzeko, ospitalean gauak egiteko eta sukalde laguntzaile lanetan jarduteko. 637-18 07 23

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka edo etxean bertan bizi izateko prest. 650-67 16 47

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketalanak egiteko, bertan bizi izateko edo kanpoko langile gisa. 689-88 97 66

**Debagoiena.** Esperientziadun neska umeak zaindu, nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Orduka edo etxean bertan bizi izatean. 689-88 97 66

**Debagoiena.** Etxeko lanak zein garbiketak egingo nituzke. Baita sukalde laguntzaile ere. 630-20 12 03

**Debagoiena.** Gizona edozein lan egiteko gertu. 637-91 46 93

**Debagoiena.** Neska gertu etxean bertan bizi izaten lan egiteko. Maria Mercedes. Deitu 680-60 18 24 zenbakikra.

**Bergara.** Neska bergararra etxeko lanak egiteko gertu.Deitu 943-76 28 12 edo 943-76 29 52 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Lan bila nabil, pertsona edadetuen zainketarako edo atarien garbiketa lanak egiteko. Gainera, peoi lanposturako ere gertu nago. Enpresen segurtasun zerbitzuetan lan egiteko gertu. 666-08 58 49

**Debagoiena.** Mutil gaztea mendian lan egin edo banatzaile lanak egiteko gertu. 606-78 35 94

**Debagoiena.** Gaztea gertu eraikuntzan edo bestelako arlo batean lan egiteko. Deitu 696-48 42 50 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu lan egiteko. 606-64 16 09

**Debagoiena.** Autocad programarekin marrazkiak eta diseinu mekaniko zein arkitektonikoak egiten ditut. Telefonoa: 696-38 10 07

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. 689-93 58 41

**Debagoiena.** Emakumea etxez etxe pedikura eta manikura egiteko prest. 654-79 07 58

**Debagoiena.** Gaztea gertu eraikuntzan edo bestelako arlo batean lan egiteko. 696-48 42 50

**Debagoiena.** Gizona edozein lan egiteko gertu. 645-72 92 87

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. 689-27 94 21

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu 662-08 22 03

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu. Umeak zaindu, garbiketa lana edo jatetxeetan lan egiteko. 600-24 58 27

**Debagoiena.** Esperientziadun mutila gertu nagusiak zaindu edo zerbitzari lanetan jarduteko. Ordutegi malgua. 646-07 79 60

**Debagoiena.** Gidabaimena eta autoa propioa daukan gazte bat lan bila dabil, edozein lan egiteko gertu dago. 606-78 35 94

**Durangaldea.** Umeak zaintzeko prest astean zehar goiz edo arratsaldez. Euskaraz dakit eta Durangon bizi naiz. Telefonoa:675-70 05 54. Marta

**Durangaldea.** Umeak zaindu edo eskolara eramateko 20 urteko neska prest. 675-70 05 54 (Marta)

**Elorrio.** Neska euskalduna eta esperientziaduna arratsaldetan (astelehenetik ostiralera) haurrak zaintzeko prest. Orain hasteko edo irailetik aurrera. Haur Hezkuntzako goi mailako heziketa zikloa eginda daukat, eta gaur egun Hezkuntza Bereziko ikasketak egiten ari naiz. Interesa baldin baduzu, jarri zaitez nirekin kontaktuan. 688-64 06 04(arratsaldetan deitu).

**Errezil.** Mutil gaztea eskaintzen da, txofer gisa lana egiteko. 27 urte, 4 urteko esperientziarekin txofer gisa kamioiarekin obretan. 692-25 33 39. Mila esker.

**Goierri.** Etxeko lanak egitea gustoko duen esperientzia duen goierriko neska bat naiz. Harremanetan jartzeko deitu: 660-02 85 52

